

Ekainaren 5eko 107/2001 FORU DEKRETUA, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duena (BAO, ekainaren 11koa)

2015eko apirilaren 1a baino lehenago sortutako zerga-egitateetarako indarrean dagoen xedapena

Ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arau-emailearen bitartez onetsitako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bategina arauz garatu behar da artikuluetan horri buruz dituen igorpen espezifikoak betetzeko eta arau-zehaztasun handiagoa behar duten kontuak osatzeko.

Aipatutako Testu Bateginaren lehenengo azken xedapenak indarrean iraun zuen, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 11/1985 Foru Arau aurretik indarrean egonaren babesean emandako arau-xedapenen eta Zergaren Foru Arauan xedatutakoaren kontrakoa ez zen bitartean, eta egun indarrean dagoen Foru Araua arauz garatzen ez zen bitartean.

Horrela, indarrean isilean iraun dute Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen martxoaren 5eko 29/1986 Foru Dekretuaren hainbat manuk eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga kudeatzeko behin-behineko arauak ekarri dituen maiatzaren 14ko 82/1991 Foru Dekretuaren hainbat manuk.

Horren ondorioz, gure Lurralde Historikoaren eta gure inguruko zerga-antolamenduen araubilakaera orain arauz garatu behar da berriro osorik Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Behin betiko indargabetu behar dira egun indarrean eta sakabanatuta dauden manuak, eta gorputz arau-emaile beraren barruan zerga horri buruzko alderdi guztiak sartu behar dira.

Hortaz, foru dekretu honen bitartez Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi gura da.

Arau-testu honetako artikuluetan sartuta dago Bizkaiko Lurralde Historikoan Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruz dagoen arautegi osoa, eta arautegi hori sartzeari bertuteetako bat da. Izan ere, bertan kopiatuta daude Zergari buruzko Foru Arauaren manuak. Gainera, bertan sartuta daude Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bateginaren artikuluen alkantzua interpretatu behar den alderdiak eta arauz garatzea beharrezko dutenak.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak proposaturik, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 2001eko ekainaren 5eko bileran, aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Onetsi egin da foru dekretu honen Eranskin gisa eman den Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia.

XEDAPEN INDARGABETZAILE

Bakarra. Arau-indargabeketa.

1. Foru dekretu hau indarrean jarritakoan, indarrrik gabe geratuko dira bertan ezarritakoaren kontra dauden edo kontrakoa adierazten duten lerrun bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

2. Zehazki, honako xedapenok geratuko dira indarrrik gabe:
- a) Martxoaren 5eko 29/1986 Foru Dekretua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duena.
 - b) Maiatzaren 14ko 82/1991 Foru Dekretua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga kudeatu eta likidatzeko behin-behineko arauak eman dituena.
 - c) Martxoaren 17ko 27/1992 Foru Dekretua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpeko ondasun- edo eskubide-eskualdaketetan peritu-tasazio kontrajarriaren bitartez baloratzeko prozedura araupetu duena.
 - d) Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergen arloko Hipoteka Barrutiaren Bulego Likidatzaileen eskumenei buruzko otsailaren 9ko 8/1993 Foru Dekretua. Zehazkiago, bertan Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa dena indargabetuko da.
 - e) Martxoaren 28ko 29/2000 Foru Dekretua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duen ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arau-emailearen 19. artikulua 1. Paragrafoko a) letra garatu duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau bera Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Arauak ematea.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena emango zaio foru dekretu honetan ezarrita dagoena garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

ERANSKINA OINORDETZA ETA DOHAINZTEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ARAUDIA

LEHEN TITULUA ZERGAREN ANTOLAMENDUA

LEHEN KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA IZAERA ETA XEDEA

1. artikulua. Izaera eta xedea.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga zuzeneko eta subjektiboa da eta beraren menpean daude ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arau-emailearen bitartez onetsitako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bateginean eta araudi honetan ezarritako eran pertsona fisikoek dohainik lortutako ondare-gehikuntzak.
2. Pertsona juridikoek zerga honetan aipatuta dauden ondare-gehikuntzak lortzea ez da zerga honen menpean geratuko eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean jarriko da

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauan eta berau garatzeko arautegian ezarritakoarekin bat etorririk.

2. artikulua. Zer da ondare-gehikuntza.

Ondasun eta eskubideak eranstea da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpeko ondare-gehikuntza, baldin eta haiek pertsona fisiko baten ondareari eransten bazaizkio eta eranste horren karia Zergari buruzko Foru Arauan eta araudi honetan zerga-betebeharra sortzeko zehaztaile bezala itxuratuta dagoen zerga-egitateren bat egitea bada.

3. artikulua. Zerga honen menpean ez dauden balizkoak.

Honakook ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean:

- a) Baimendutako jokoetan lortutako sariak.
- b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpeko kalte-ordainak eta gainerako sariak.
- c) Ongintza-, irakas-, kultura-, edo kirol-helburuak edo gizarte ekintzak xede dituzten erakunde publikoek edo pribatuek ematen dituzten diru-laguntzak, bekak, sariak, primak, haborokinak eta sorospinak.
- d) Korporazioek, elkarteek, fundazioek, sozietateek, enpresek eta gainerako Erakundeek beren langileei, enplegatuei eta alokairupekoei emandako kopuruak, prestazioak edo onurak, baldin eta lan-kontratutik zuzenean edo zeharka badatoz, haiek itundutako aseguru baten bitartez ordaintzen diren arren.
- e) Ondoren zehaztuko diren gizarte aurreikuspeneko sistemen onuradunek prestazio gisa jasotzen dituzten kopuruak, baldin eta prestazio horiek hartzailearen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarrian sartzan badira:
 1. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek zerga araubideari buruzko uztailaren 30eko 6/1988 Foru Arauari heldutako borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak.
 2. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio Fondo eta Planei buruzko Legearen Testu Bateginari eta laneko pentsio fondoan jarduerari eta gainikuspenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/CE Zuzentarauari heldutako pentsio fondo eta planak.
 3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauan aipatutako bermaturiko aurreikuspen planak eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planak.
- f) Hartzekodun batek aurreko zorra ordainduko dela bermatzeko egindako bizi-aseguruaren kontratu baten onuradun gisa jasotako kopuruak, baldin eta inguruabarrok behar bezala frogatuta badaude.
- g) Ondasunen foru komunikazioaren ezkontza-araubide ekonomikoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araututakoa, desegiten denean ezkontide edo izatezko bikotekide (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) alargunari komunikaturiko ondasunetatik dagokion erdia ordaintzeko egiten zaizkion adjudikazioak.

4. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekiko bateraezintasuna.

Ondare-gehikuntza bera inoiz ezin izango dute batera zergapetu Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak.

2. ATALA ZERGA APLIKATU ETA ORDAINARAZTEKO EREMUA

5. artikulua. Aplikazio-eremua eta ordainarazpena.

1. Araudi honetan xedatutakoa ohiko egoitza Espainiako lurraldean duten zergadunei betebeharraren zioz aplikatuko zaie ondoren adieraziko diren balizkoetan:

- a) "Mortis causa" eskuraketetan, kausatzaileak bere ohiko egoitza Bizkaian izan badu.
- b) Bizi-aseguruen onuradunek heriotzaren zioz kopuruak jasotzen dituztenean, baldin eta aseguratuak bere ohiko egoitza Bizkaian izan badu sortzapen-egunean.
- c) Ondasun higiezinaren dohaintzetan, Bizkaian badaude.

Ondore hauetarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan aipatutako baloreen doako eskualdaketak.

- d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-emaileak ohiko egoitza Bizkaian izan badu sortzapen-egunean.

Aurreko a), b) eta d) letretan ezarritakoa gorabehera, kausatzaileak, aseguratuak edo dohaintza-hartzaileak Euskadin duen egoitza eskuratu duenetik Zerga sortu arte bost urte igaro ez badira, araubide erkideko lurraldean indarrean dauden Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arauak aplikatuko dira. Arau hau ez zaie aplikatuko Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 7.2. artikulua araberako euskal herritartasun politikoari eutsi diotenei.

2. Araudi honetan xedatutakoa ohiko egoitza atzerrian duten zergadunei betebeharraren zioz aplikatuko zaie ondoren adieraziko diren balizkoetan:

- a) Mota guztietako ondasunen eta eskubideen eskuraketetan, baldin eta euskal lurraldean osorik kokatuta badaude, edo bertan erabili ahal badira edo bete behar badira eta Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta dauden, erabili ahal diren edo bete behar diren ondasun edo eskubideen balioa beste bietako bakoitzean dutena baino handiagoa bada.
- b) Bizi-aseguruen kontratuetatik datozen kopuruak jasotzen direnean, baldin eta kontratua egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duen erakunde aseguratzailer batekin edo Bizkaian jarduten duten atzerriko erakunde batekin egin bada.

Aurreko bi letretan ezarritakoaren ondoreetarako, ondorengoak joko dira euskal lurraldean kokatutzat:

1.a. Bertan finkatuta dauden ondasun higiezinak.

2.a. Euskal lurraldean kokatuta dauden etxebizitzeari, finkei, ustiatzei edo industri establezimenduari etengabe loturiko ondasun higikorak eta, orokorrean, lurralde honetan egon ohi direnak, nahiz eta Zerga sortzen den unean abaguneko inguruabarrengatik eta inguruabar iragankorrengatik bertatik kanpo dauden.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako balizkoetan Bizkaiko Foru Aldundiak ordainaraziko du Zerga.
4. Baldin eta dokumentu batean dohaintzaile batek dohaintzahartzaile bati ondasun edo eskubide batzuk dohaintzen badizkio eta, aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuta, etekina Bizkaiko Lurralde Historikoan eta beste zerga-administrazio baten menpeko lurralde batean gertatutzat jo behar bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ordainarazi beharreko kuota

hauxe izango da: dohaindutako balioari eskualdatzen diren guztien balioari araudi honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasari aplikatuta sortzen dena.

5. Dohaintzak metatzen diren kasuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoari kuota hau dagokio: eskualdatuta dauden ondasunen eta eskubideen balioari metatutako guztien balioari araudi honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasa aplikatuta sortzen dena.

Ondoreotarako, pilatutako ondasun eta eskubide guztiak aurreko dohaintzetakoak eta oraingoan eskualdatutakoak dira.

6. Artikulu honetan xedatutakoaren ondoreetarako, pertsona fisikoek beren ohiko egoitza Bizkaian dutela esan daiteke honako erregelok elkarren segidan aplikatu ahal badira:

- 1.a. Zerga sortzen den egunaren bezperan amaitzen den urteko egun gehienak Euskal Herrian emanik, datatik datara zenbatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoan beste lurralde historiko bakoitzean baino egun gehiagoan egotea.

Bizkaiko egonaldia zenbatekoa izan den zehazteko, aldi baterako ausentziak konputatuko dira.

Besterik frogatu ezean, pertsona fisiko bat Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela pentsatuko da ohiko etxebizitza bertan duen artean.

- 2.a. Interesen gune nagusia Bizkaian izatea. Zergadun batek bere interesik gehienak Bizkaian dituela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lorturik, horren zatirik handiena Bizkaiko Lurraldean lortzen duenean, higikorren kapitalaren errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako zerga oinarriak kenduta.

- 3.a. Bizkaian egotea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoreetarako aitortutako azken egoitza.

Bigarren erregela lehenengoan xedatutakoaren arabera ohiko egoitza non dagoen – lurralde erkidean edo foralean- ezin zehaztu izan bada aplikatuko da. Hirugarren erregela aurreko bi arauak aplikatuta ohiko egoitza non dagoen ezin zehaztu denean aplikatuko da.

7. Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egunetan baino gehiagotan ez daudenak, Euskal Herriko egoiliarrek izango dira, baldin eta bertan kokatuta badago beraien interes ekonomikoen edo enpresa edo lanbide jardueren gune nagusia edo basea.

Pertsona fisikoak, aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko egoiliartzat hartzen direnean, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar direla ulertuko da, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien interes ekonomiko gehienak.

8. Pertsona fisiko bat Espainiako lurralde egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez bereizita ez badago, eta beraren menpeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoelako, beraren ohiko egoitza Bizkaian dagoela pentsatuko da. Uste horren aurkako frogak aurkez daitezke.

9. Zergaren zioz gutxiago ordaintzeko asmoarekin egiten diren egoitza-aldaketek ez dute eraginik izango.

10. Zerga hau betebeharrak errealagatik ordaindu behar duten subjektu pasiboek, artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatu direnek, egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duen pertsona bat izendatu behar dute euren ordezkaria izan dadin Zerga Administrazioaren aurrean zerga honen inguruko betebeharrak.

Gauza bera egin behar dute Zerga betebeharraren pertsonalagatik ordaindu behar duten subjektu pasiboetatik Bizkaiko Lurralde Historikotik zerga egitatea gertatu ondoren eta agiria edo aitortza aurkeztu aurretik joaten direnek ere; honek badu salbuespena: agiriak aurkezteko arauko epea amaitu aurretik itzuliko badira, ez dute ordezkariak izendatu beharrik.

Subjektu pasiboak izendapen horren berri jakinaraziko diote Zerga Administrazioari; horrekin batera ordezkariaren berriazko onarpen-adierazpena ere bidali behar dute.

11. Artikulu honetan xedatu denak ez du eragozten Espainiar estatuak sinatu eta berretsi edota atxikitzen zaien nazioarteko itunben eta hitzarmenetan xedatutakoa.
12. Euskal Administrazio Publikoak eta Espainiar estatuko gainerako erakundeek atzerrian dituzten ordezkariak eta funtzionarioak zerga honen kargapean daude betebeharraren pertsonalaren zioz, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan subjektu pasibo horientzat ezarritako inguruabar eta baldintzei lotuko zaizkie.

3. ATALA **ZERGAREN KALIFIKAZIO ABIABURUA ETA UKIPENA**

6. artikulua. Kalifikazio abiaburua.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eskuraketaren karia den kontratuaren edo egintzaren benetako izaera juridikoaren arabera eskatuko da, aldeak aukeratutako era edo berauek hari emandako izena edo zer delarik ere. Haren baliozkotasuna eta eraginkortasuna uki dezaketen erazko eta berezko akatsak baztertu dira. Hala ere, kontutan hartuko da itzulketarako eskubidea, itzulketa hori bidezkoa bada.

7. artikulua. Baldintzak bateratzea.

Baldin eta Zergaren menpean dagoen ondare-gehituntza baten karia den egintzak edo kontratuak baldintza bat bete behar badu, hura Kode Zibilean aipatuta dauden preskripzioen eta funtsezko arau zibilen arabera kalifikatuko da.

Etengarri bezala kalifikatuz gero, Zerga ez da baldintza bete arte likidatuko eta dagokion Erregistro publikoko ondasun-erregistroan adieraziko da likidazioa geroratu dela.

Suntsigarri bezala kalifikatuz gero, Zerga baldintza betetzen denean eskatuko da baina itzulketa egokia egingo da araudi honen 110. artikulua arauen arabera.

8. artikulua. Eskualdatutako ondasunen ukipena.

1. Eskualdatutako ondasun eta eskubideek, beraien edukitzailea edonor delarik ere, beraiek eskuratzea zergapetzen duen Zerga likidatua edo likidatu gabea ordaintzeko erantzukizuna ekarriko dute, edukitzaile hori erregistroko agerbide publikoak babesturiko gainontzekoa ez bada edo, erregistratu ezin diren ondasun higikorren kasuan, ondasunak merkataritza edo industri establezimenduan onustez eta titulu zuzenean eskuratu direla frogatzen ez bada.

Erantzukizun hori notarioek agerraraziko dute baimentzen dituzten agirietan behar bezala oharraraziz.

Gainontzekoa ez da erregistroko agerbide publikoak babestuzat joko, baldin eta Erregistroan berriaz agertzen bada ukipena (kasu honetan, Zerga ordaintzeko erantzukizuna).

2. Baldin eta gero, zerga-onura eraginkorra behin betiko izan dadin, zergadunak beharkizunik bete behar badu, Bulego Likidatzaileak hori agirian agerraraziko du hura aurkezleari itzuli baino lehen, zerga-onura tartean egon izan ez balitz igorri beharko zatekeen likidazioaren guztirako zenbatekoa islatu beharko duelarik.

Jabetzako erregistratzaileek edo Merkataritzakoek albo-oharrean agerraraziko dute eskualdatutako ondasunek, haien titularra edonor delarik ere, beharkizuna betetzen ez bada bidezkoak diren likidazioak ordaintzeko ardura dakartela. Izan ere, beharkizun hori betetzea beharrezkoa da zerga-onura behin betiko eraginkorra izan dadin. Hori guztia egin behar da, araudi honetan xedatutakoarekin bat etorririk.

3. Era berean, haiek albo-oharrean agerraraziko dute, jabaria zatibanatuz gero, nolako lotura duten ondasunek haiek sendotzen diren unean bidezkoa den likidazioa ordaintzearekin. Horretarako, Bulego Likidatzaileek behin-behinean eta arteztu ahal dela kontutan harturik bidezkoa dena zainpetuko dute. Horretarako, kontutan hartuko dira gozamina eratzen den unean aplikatu ahal diren oinarriak eta tasak.
4. Aurreko 2. eta 3. Paragrafoetan aipatuta dauden Bulego Likidatzailearen oharrak agertzen ez badira, Jabetzako erregistratzaileek edo Merkataritzakoek ofizioz burutuko dute ukipenari buruzko albo-oharra, beharrezko autolikidazioa edo likidazioa (jaso duen Bulegoak zigilatua) ikusita gertatzen diren balizkoetarako ezarria. Bertan agerraraziko dute zerga ordaindu dela edo zergaren menpean ez egoteko edo zerga honetatik salbuesteko alegazioa aurkeztu dela. Hori guztia araudi honen 113. artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk egingo dute.

II KAPITULUA ZERGA-EGITATEA

1 ATALA ZERGA-EGITATEA MUGATZEA

9. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Honakoa da zerga-egitatea:
 - a) Ondasunak eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz eskuratzea.
 - b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta inter vivos negozio juridikoz eskuratzea.
 - c) Bizitza-aseguruen onuradunek kopuruak jasotzea, kontratua egin duena onuraduna ez denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 18. artikuluan berariaz araupetutako kasuetan izan ezik
2. Aurreko lerroaldeko a) letran aipatu diren eskuraketak kausatzailea hiltzen den egunean egindakotzat hartuko dira. Hori dela eta, Zerga eskatzeko nahikoa izango da eskualdaketaren egitate sortzailea frogatuta egotea, agiriak, inbentarioak edo banaketak egin gabe edo likidatzeko aurkeztu gabe egon arren.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ezingo zaie aplikatu jaraunspenezko eskuraketei baldin eta berauek oraingo eraginkortasuneko oinordetza-itunen ondorio badira, edo komisarioak ordenatzaile-ahala baliatzetik datozen egintzen ondorio badira, edozein izanda ere azken horiek hartzen duten era.

10. artikulua. Oinordetza-tituluak.

1. Jaraunspenez eta legatuaz gain, honakook dira, besteak beste, oinordetza-tituluak zerga honen ondoretarako:
 - a) Mortis causa dohaintza.
 - b) Oinordetzazko kontratuak edo itunak, berauek eragina noiz duten berdin delarik.
 - c) Ezkontza-hitzarmentan oinordea izendatzea.

- d) Komisarioak ordeinatzeneko ahala erabiltzetik datozen egintzak, zein itxura hartzen duten berdin delarik.
 - e) Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta Erakundeek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzitzeko balio duten egintzak, haien modalitatea edo izena zein den berdin delarik, baldin eta araudi honen 9. artikularen 1. Paragrafoko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan berariaz xedatuta ez badago kopuruok jasotzeagarik zerga ordaindu beharra.
 - f) Albazeei beren lanak egiteagatik testamentugileek esleitutako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzitzeko balio dutenak, baldin eta haiek jaraunspenezko ondasuntzaren balio egiaztatuen %10 gaitzen ez badute.
2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatian aipatu diren oinordetza-tituluen bidezko doako eskuraketetatik datozen ondaregehikuntzen likidazioa, zerga-ondore guztietarako, araudi honetan ezarritako arauak erabiliz egingo da, bai mortis causa eskuraketetan, bai jaraunspen, legatu eta beste edozein oinordetza-tituluren bidezko eskuraketetan ere.

11. artikulua. Doako eta inter vivos negozio juridikoak.

1. Dohaintzaz gain honakoak hartuko dira, besteak beste, zerga honen ondoreetarako doako eta inter vivos negozio juridikotzat:
- a) Zorra osorik edo partzialki barkatzea, eskuzabaltasunez.
 - b) Eskubideei uko egitea pertsona jakin baten alde.
 - c) Inoren zorraren kontraprestaziorik gabeko kitapena bereganatzea, araudi honen 43. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.
 - d) Beste aldearen alde tartekaritza edo judizioan amore eman edo atzera egitea, eskuzabal jokatzeko asmoz; eta asmo berarekin uko egitea, atzera egitea edo amore ematea dakarren transakzioa.
 - e) Biziazen gaineko aseguru-kontratua, aseguratuak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru-kontratua, kontratugilea ez den aseguratu hilez gero, kasu batean eta bestean onuraduna kontratugilea ez bada.
2. Araudi honen 10. artikuluan ezarritakoaren itzalpean oinordetza-titulu gisa definitzen diren egintzak edo negozio juridikoak inoiz ere ez dira likidatuko araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran aipatutako doako eta inter vivos negozio juridikoak balira bezala.

Aldiz, horrelako egintzak eta kontratuak likidatzean kontuan hartuko dira araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran aipatutako eskuraketetatik datozen ondaregehikuntzetarako ezarritako arauak, hau da, jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz ondasun eta eskubideak eskuratzetik datozen ondare-gehikuntzei buruzko arauak.

12. artikulua. Istripu-aseguruaren lotura-balizkoak.

Istripu-aseguruaren onuradunak kopuruak jasotzea araudi honen 9. artikularen 1. Paragrafoko c) letrako zerga-egitatean sartuta egongo da, kopuruak jasotze horren karia pertsona aseguratu hiltzea bada.

13. artikulua. Aldizkako prestazioak.

1. Araudi honen 9. artikularen 1. Paragrafoko c) letran, 10. artikularen c) eta d) letretan eta 11. artikularen e) letran aipatuta dauden kopuruak jasotzea Zergari loturik egongo da, bai behingoan jasotzen badira bai aldizka, hil arte edo aldi batean jasotzen badira.

2. Aldizkako, biziarteko edo aldi baterako prestazioak jasotzearen eraentzailea izango da Zerga sortzeari buruz araudi honetan xedatuta dagoena.
3. Aurreko paragrafoko kasuetan, Administrazioak, bertako perituen irizpenaren bitartez, jardulariengana jo ahalko du beronek pentsioaren egungo balioa kalkula dezan. Horrela, zerga-egitatea zehaztu ahalko du.

2. ATALA

ZERGA-EGITATEEN USTEZKOTASUNA

14. artikulua. Presuntzioak.

1. Dohaineko eskualdaketa bat dagoela uste izango da, baldin eta erregistro fiskaletan jasota dauden datuetatik edo Administrazioak dituenetatik ondorioztatzen bada pertsona baten ondarea txikitu dela eta, aldi berean edo ondoren —baina betiere Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluan ezartzen den preskripzio-eparearen barruan—, handitu egiten dela ezkontidearen, (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikoteko bikotekidearen, arbasoen, ondorengoen, adopzio-hartzaileen eta adopzioan hartutakoaren ondarea.
2. Arbasoek adin txikiko ondorengoen izenean egindako kostu bidezko eskuratzeetan, presuntzioa izango da azken horien aldeko dohaineko eskualdaketa dagoela, eskualdatutako ondasun-eskubideen balioaren bestekoa, salbu eta frogatzen bada adin txikikoak aurretik bazuela eskualdaketa hori egiteko beste ondasun edo baliabiderik eta frogatzen bada horretarako erabili dituela.
3. Zergari dagokionez, ezkontideen, (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikoteko bikotekideen, arbasoen eta ondorengoen edo adopzio-hartzaileen eta adopzioan hartutakoaren arteko dohaintzak ez egindakotzat joko dira, baldin eta ezin bada egiaztatu aldi berean eta neurri berean gertatu direla dohaintza-hartzailearen ondarearen gehikuntza, batetik, eta dohaintzailearen ondarearen txikitzea, bestetik.

15. artikulua. Zerga-egitateen presuntzioen gaineko prozedura.

Administrazioak araudi honen 14. artikuluan aipatuta dauden egitateetako baten berri badu, eta kontuan hartuta egitateotan oinarritzen dela Zergari loturiko dohaintzarik egotearen edo ez egotearen gaineko presuntzioa, orduan interesdunei jakinaraziko die egitateon berri izan duela, haiek adieraz dezaten ea ados dauden ala ez. Halaber, hamabost eguneko epea emango die, egin nahi dituzten alegazio guztiak aurkez ditzaten, horretarako egokiak diren probak edo agiriak erabiliz.

Epe hori pasatuta, eta espedientea ikusita, dagokion ebazpena emango du Administrazioak, eta interesdunei jakinaraziko die.

3. ATALA

SALBUESPENAK

16. artikulua. Salbuespenak.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bateginaren 5. artikuluan ezarritako eran, pertsona fisikoek dohainik lortutako ondare-gehikuntzak, baldin eta salbuespen-kari batzuekin badatoz. Salbuespen-kari horiek honakook dira:
 - a) Ahaidetasun mailarekin lotuta dauden salbuespenak.
 - b) Nekazaritzarekin lotuta dauden salbuespenak.
 - c) Foru Zuzenbide Zibilarekin lotuta dauden salbuespenak.

- d) Beste salbuespen batzuk.
2. Artikulu honetako aurreko paragrafoan aipatutako salbuespena izan ahal izateko, araudi honen 17-20 artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

17. artikulua. Ahaidetasun mailarekin lotuta dauden salbuespenak.

Honakook egongo dira ahaidetasun-zioz salbuetsita:

1. Subjektu pasiboaren ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), aurreko edo ondorengo bat (odol-ahaidetasunaren araberrako lerro zuzenean) edo gurasotzako edo umeorde bat hil ondorengo jaraunspenezko eskuraketak.
2. Heriotza-kasurako bizi-aseguruetan konpainia edo erakunde aseguratzaileek emandako kopuruak, baldin eta kontratugilearen edo aseguruaren hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna ezkontidearena edo izatezko bikoteko kidearena (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), aurrekoarena edo ondorengoarena (odol-ahaidetasunaren araberrako lerro zuzenean) edo gurasotzakoarena edo umeordearena bada.

Hala ere, enpresek euren enplegatuentzat kontratatutako edo taldekako aseguruetan kontuan hartuko da aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasun-gradua.

3. ...
4. ...

18. artikulua. Nekazaritzarekin lotuta dauden salbuespenak.

Honakook egongo dira Zergatik salbuetsita:

1. Lurrak dohainik, inter vivos edo mortis causa eskuratzea, baldin eta lehentasunezko ustiategi bat eratzeko beharrezko azalera mugari bakarraren pean osatzeko eskuratzen badira eta eskuraketari buruzko agiri publikoan agertzen bada ezen emaitzako finka ezin dela 5 urtean zatitu, ezinbesteko balizkorik ez badago.

Lehentasunezko nekazaritza-ustiategitzat hartu behar da, aurreko ahapaldian ezarritakoaren ondoretarako, Nekazaritzako Ustiategiak Modernotzeari buruzko uztailaren 5eko 19/1995 Legearen 4-6 artikuluetan horrela definitutako ustiategia.

2. Nekazaritza-ustiategi baten edo beronen zati baten edo landa-finka baten jabari osoa edo biziarteko gozamina nekazari gazte edo nekazaritzako alokairupeko bati dohainik, inter vivos edo mortis causa eskualdatzea, baldin eta hark lehentasunezko ustiategi batean lehen aldiz finkatzeko Nekazaritzako Ustiategiak Modernotzeari buruzko uztailaren 5eko 19/1995 Legean ezarritako ezaugarriak eta beharkizunak betetzen baditu.

Aurreko ahapaldian ezarritako salbuespena aplikatu ahal izateko eskuraketari buruzko eskritura publikoan eta, hala denean, Jabetzaren Erregistroan agerrarazi behar da ezen eskuratutako finkak hurrengo bost urteetan zehar besterendu, errentan eman edo lagatzen badira, aurretik Zergaren ordainketa edo zati batena frogatu beharko dela. Zati hori salbuespen honen eta berandutza-korrituen ondorioz sartuko ez zena izango litzateke. Salbuespena ezinbesteko balizkoetatik dator.

19. artikulua. Foru Zuzenbide Zibilarekin lotutako salbuespenak.

Honakoak egongo dira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergatik salbuetsita: etxadiaren eta beronen jabegoen jabari osoa edo biziarteko gozamina enborreko ahaideei dohainik eskualdatzea, baldin eta finka nekazaritza, baso- edo abeltzaintza-ustiapenerakoa bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu.

Eskualdatze hori zerga honetatik salbuetsita egon dadin eskuratzailerak berak arduratu behar du gutxienez sei urteko epean etxadia eta beronen jabegoak ustiatzeaz

20. artikulua. Beste salbuespen batzuk.

Era berean, honakook egongo dira Zergatik salbuetsita:

1. Biziaren gaineko aseguru-kontratuen zioz jasotako kopuruak, baldin eta kontratuok zibila edo merkataritzakoa den eragiketa nagusia estaltzeko tresna bezala jarduteko ituntzen badira.

Artikulu honen aurreko ahapaldian ezarritako salbuespenak kopuru egokia izango du muga; izan ere, hala denean, gaindikinari begira zerga ordaindu beharko da.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 74. artikuluan xedatutakoaren itzalpean borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei, pentsio planei eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak, pertsona ezinduen ondarrerako ekarpenei dagozkien ondasun eta eskubideen eskuraketak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 87. artikulua), baldin eta, bi kasuetan, araudi honetako 17. artikuluan xedatutakoaren arabera ahaidetasuna dela eta salbuetsita ez badaude.

III. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK

1. ATALA ZERGADUNAK

21. artikulua. Zergadunak.

1. Honakook egongo dira zergadun gisa kasu batzuetan Zerga ordaindu beharrean:
 - a) Mortis causa eskuraketetan, kausaduna.
 - b) Dohaintzetan eta gainerako inter vivos doako eskualdaketetan, dohaintza-hartzailea edo eskuratzailerak. Horrelakotzat hartuko da bizi-aseguruaren onuraduna, aseguratuek bizirik iraunez gero; edo banakako aseguruaren onuraduna, kontratugilea ez den pertsona aseguraturak hilez gero.
 - c) Aseguruaren heriotza-kasurako biziaren gaineko aseguru-kasuetan eta araudi honen 12. artikulukoetan, onuraduna.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ahalko da, aldeek ezarritako hizpaketak edo testamentugileak agindutako xedapenak edozer direlarik ere.
3. Legatua ematea Zergatik aske izateko edo Zerga jaraunspenaren pentzutari ordaintzeko agintzen duen testamentu-xedapenak ez du zerga ordaindu behar duen pertsonari begirako aldakuntzarik ekarriko.

22. artikulua. Egozteko araubidea.

Sozietate zibilek, jaraunspen banatu gabeen hartzaileek, ondasun-erkidegoek eta nortasun juridikorik ez duten eta ekonomi batasuna edo banatutako ondarea osatzen duten gainerako erakundeek dohainik eskuratutako ondasunak eta eskubideak bazkideei, jaraunseei, erkideei eta partaideei egotziko zaizkie, hurrenez hurren, kasu bakoitzean aplikatu ahal diren arau edo itunen arabera. Hala ere, kontutan hartuko da araudi honen 9. artikulua 2. Paragrafoan ezarritakoa.

Zerga Administrazioak sinesgarriro horien berririk ez badaki, haiei zati berdinetan egotziko zaizkie.

2. ATALA ERANTZULEAK

23. artikulua. Erantzule subsidiarioak.

Sorospidez, Zerga ordaintzearen erantzukizuna izango dute, emandako ondasunari dagokion kuotaren zatian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasota dauden erantzukizun solidarioaren gaineko arauak ezar daitezkeenean izan ezik:

- a) Finantza-bitartekariak eta gordailuen, bermeen edo kontu korronteen «mortis causa» eskualdaketetan, dirua edo gordailutako baloreak eman, edo eraturako bermeak itzuli dituzten gainerako erakundeak, sozietateak edo pertsonak.

Ondorio horietarako, ez da diru edo gordailutako baloreak ematzat joko, ez bermeak itzultzetat joko, gordailuen, bermeen edo beharrezkoa den baloreen salmentaren emaitzaren kargura banku-txekeak igortzea, eta helburu bakartzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, «mortis causa» eskualdaketa zergapetzen duena, ordaintzea bada, eta baldin eta txekoa zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenean egin bada.

- b) Bizitza-aseguruen polizetan hizpatutako kopuruak ematen dituzten aseguru-konpainiak edo -erakundeak.

Ondorio horietarako, ez da aseguru-kontratuen kopuruak ematzat joko prestazioa kontura ordaintzea, bere helburua bakarra Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, prestazio horren hartukizuna zergapetzen duena, ordaintzea bada, eta baldin eta egiten bada Zergaren hartzekoduna den Administrazioaren izenean egindako banku-txekearen onuradunei emanda.

- c) Jaraunspenaren zati diren balore-tituluen eskualdaketan bitartekari direnak.

Ondorio horietarako, ez da joko bitartekari horiek zergaren erantzuleak direnik, jaraunsean aginduz, beharrezkoak diren baloreak saldu baino egiten ez badute, salmenta horren helburu bakarra Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, mortis causa eskualdaketa zergapetzen duena, ordaintzea bada, eta baldin eta salmenta horretan lortutako salneurriaren aurka onuradunei ematen bazaie zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenean egindako banku-txekea.

24. artikulua. Funtzionarioen erantzukizun subsidiarioa.

Era berean, erantzule subsidiarioa izango da estatuko, autonomiako, foruko edo tokiko edozein zergaren subjektu pasiboaren aldaketa eta ordainarazpena baimentzen duen funtzionarioa, baldin eta aldaketa horrek zerga honek zergapetutako eskuraketarik zuzenean edo zeharka badakar eta zerga hau ordaintzea frogatzea aurretik eskatu ez bada.

24. artikulua. Erantzule solidarioa.

...

25. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa mugatu eta iraungitzea.

1. Araudi honen 23. artikuluan aipatuta dagoen erantzukizun subsidiarioa berau sorrarazten duten ondasunak eskuratzeari dagokion Zergaren zatiari begirakoa izango da soilik. Zati hori ondasunen balio egiaztatuari benetako batezbesteko karga-tasa aplikatetik ateratzen dena izango da.

Ondoreotarako, benetako batezbesteko karga-tasa zerga-kuota oinarri likidatorraz zatitu eta emaitza 100ez biderkatetik ateratzen dena izango da. Benetako batezbesteko karga-tasa bi hamarren sarturik adieraziko da.

2. Likidazio edo autolikidazio partziala baimenduta dagoenean, araudi honetako arauen arabera egindako horren zenbatekoa izango da erantzukizun subsidiario posiblearen muga, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuz ateratzen dena baino txikiagoa izanez gero.
3. Araudi honen 108. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako autolikidazio partzialaren edo likidazio partzialaren zenbatekoa sartzeak erantzukizun subsidiarioa iraungiarazi ahalko du, araudi honen 23. artikuluan aipatuta dauden Erakundeentzat eta pertsonentzat ondasunak jaraunspenez eskualdatzeagatik Zerga ez ordaintzeak ekar dezakeena.

IV. KAPITULUA ZERGA-OINARRIA

1. ATALA ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEARI BURUZKO ARAUAK

26. artikulua. Zerga-oinarria zehazteko arauak.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zerga-oinarria Zerga Administrazioak zuzeneko zenbatespeneko araubidearen bidez zehaztuko du orokorrean. Horretarako, Zerga Administrazioak kontutan hartuko ditu, hala denean, Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bateginean eta foru dekretu honetan horretarako ezarritako manu bereziak.
2. Zergaren zerga-oinarria zuzeneko zenbatespeneko araubidearen bidez zehaztu ezin bada, Zerga Administrazioak zerga oinarrien zeharkako zenbatespeneko araubidearen bidez zehaztu ahalko du, baldin eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 50. eta 51. artikuluetan horretarako eskatutako beharkizunak eta baldintzak bateratzen badira.

27. artikulua. Zerga-oinarria zehazteko abiaburu orokorrak.

1. Heriotzaren karizko eskuraketetan, kausadun bakoitzaren jaraunspenezko ondasuntzako banakako partaidetzaren balio garbia izango da Zergaren zerga-oinarria. Balio garbi hori eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioari kendu ahal diren karga, zor edo gastuak kentzetik ateratzen dena izango da.
2. Dohaintzetan eta pareka daitezkeen gainerako inter vivos dohainikako eskualdaketetan, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbia izango da zerga-oinarria. Balio garbi hori eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioari kendu ahal diren karga eta zorrak kentzetik ateratzen dena izango da. Karga eta zor horiek kendu ahal izateko beharrezkoa da araudi honen kapitulu honetako 3. atalean ezarritako baldintzak betetzea.
3. Aseguratuaren heriotza-kasurako biziaren gaineko aseguru-kontratuetatik datorren kopururik jasoz gero, onuradunak jasotako kopuruen zenbatekoa izango da zerga-oinarria.

28. artikulua. Baloratzeko erregela bereziak.

1. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak, orokorrean, benetako balioaren bidez baloratuko dira, araudi honen 27. artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk. Hala ere, kontutan hartuko dira baloratzeko araudi honen 67. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arau bereziak.
2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa eta administrazioaren egiaztaketa kontutan hartuko dira, araudi honen 47. artikuluan eta hurrengoetan aipatuta dagoen bezala. Hala ere, jarraian aipatzen diren ondasun eta eskubideak adierazten diren balioen bidez baloratu ahalko dira:
 - a) Hipotekak, bahiak eta antikresiak bermatutako kapital edo obligazioaren zenbatekoan baloratuko dira. Bertan sartuta egongo dira gehienez bost urtetarako korrituen, kalte-ordainen, ez betetzeagatik zigorren edo antzeko beste kontzeptu baten bidez aseguratzen diren kopuruak. Bermatutako kopuruaren zenbatekoa berariaz agertzen ez bada, oinarritzat kapitala hartuko da, eta hiru korritu-urte.

b) Aurreko letran eta araudi honen 67-70 artikuluetan sartuta ez dauden gainerako ondasun-eskubideak aldeek berauek eratzean itundutako balioaren, prezioaren edo kapitalaren bidez egotziko dira, baldin eta balio hori urteko pentsioa edo errenta diruaren legezko korrituan kapitalizatetik ateratzen denaren berdina edo berau baino handiagoa bada; edo hura, berau txikiagoa bada. Zehazki, aurreko ahapaldian xedatutakoa aplikatuko zaienak honakook izango dira:

i) Azalera-eskubidea.

ii) Ondasun-zortasunak.

iii) Zentsuak.

c) Pentsioen zerga-oinarria lortzeko, haiek diruaren legezko korrituan kapitalizatuko dira eta emaitzako kapitaletik zati bat hartuko da, araudi honen 67. artikuluan gozamenak baloratzeko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokiona, pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa bada.

Pentsioaren zenbatekoa moneta-unitatetan kuantifikatzen ez bada, zerga-oinarria lortzeko, lanbidearteko gutxieneko alokairuaren urteko zenbatekoa kapitalizatuko da diruaren legezko korrituan.

Artikulu honetako aurreko ahapaldietan ezarritakoaren ondoretarako, urteko bati dagokion kopurua kapitalizatuko da.

d) Bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzen diren balore-eskualdaketetan, baloreen benetako balioa izan daiteke zerga-oinarria. Baloreen benetako balioa haiek eskuratzen diren eguneko kotizaziotik ateratzen dena izango da, edo, horren ezean, haiek negoziatu diren aurre-aurreko lehenengo eguneko kotizaziotik ateratzen dena. Baina egun horrek haiek eskuratu aurre-aurretiko hiruhilekoaren barruan egon behar du beti.

e) Bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzen ez diren tituluak dituzten erakundeen sozietate-kapitaleko partaidetzarik eskualdatuz gero, onetsitako azken balantzetik ateratzen den partaidetzen balio teorikotik datorrena izango da zerga-oinarria, baldin eta azken balantze hori derrigorrez edo borondatez berriro ikusi eta egiaztatu bada eta auditoretza-txostena aldekoa bada. Hala ere, administrazioak gero egiaztatu ahalko du.

Balantzeari auditoretzarik egin ez bazaio eta auditoretza-txostena aldekoa ez bada, balorazioa hiru baliotariko handienatsitako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoa edo eskualdaketa egin baino lehenago bukatutako hiru sozietate-ekitaldietako mozkinen batezbestekoa 100eko 20ko tasan kapitalizatetik ateratzen dena.

Azken ondore horretarako, mozkin bezala konputatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak, balantzeak erregularizatu edo eguneratzekoak alde batera lagata.

Hiru ekitaldi guztietan mozkinik sortu ez bada, idatz-zati honetako aurreko ahapaldietan aipatuta dagoen mozkinen batez-bestekoa kalkulatzeko, mozkinik gabeko ekitaldiari dagokion mozkin bezala zero euroko kopurua hartuko da, eta hiru ekitaldietako mozkinak batuko dira eta, gero, hiruz zatitu.

Halaber, orokorrean onartutako ekonomia- eta kontabilitate-irizpideei jaramon egiten bazaie eta, zehaztutakoaren arabera, partekatutako erakundearen merkataritza-fondo inplizitu, aktibo ezmaterial edo gainbalio estali batzuk badaude, berauen zenbatekoa gehitu beharko zaio erakundeak onetsitako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoari, zertarako-eta idatz-zati honetako aurreko ahapaldietan aipatuta dauden balioak erkatu eta, horren ondorioz, kapitaleko partaidetzen benetako balioa ezartzeko.

- f) Negoziatu ahal den beste edozein balore eskualdatzean, beronen balio izendatua izango da oinarria.
- g) Mailegariaren berme pertsonala beste bermerik ez duten maileguetan, fidantzaz aseguratutakoetan eta ordaindutako gordailua eta zorrak aintzatesteko kontratuetan, obligazioaren kapitala edo gordailututako gauzaren balioa izango da zerga-oinarria.

Kreditu-kontuetan mailegariak benetan erabili duena izango da oinarria.

Bahiz, hipotekaz edo antikresiz bermatutako maileguetan, paragrafo honetako a) letran xedatutakoa ikusiko da.

- 3. Aurreko paragrafoan azaldutako erregelak gorabehera, Zerga Administrazioak benetako balio ezberdina zehaztu ahal du, baldin eta aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako balioak kasu zehatzeko ondasunaren edo eskubidearen benetako balioarekin bat ez datozela uste badu. Horretarako, bat ez etortze hori behar bezala frogatu beharko du eta balioak egiaztatze bide batzuk erabili behar ditu, araudi honen 47. artikuluan aipatuta daudenak alegia.

Alabaina, zergadunari, zerga honengatiko bere aitorpenean artikuluan honen 2. Paragrafoko erregelen arabera balioei lotu bazaie, ezin izango zaio zerga-zehapenik jarri aurreko ahapaldian ezarritakoaren arabera Administrazioak balioak egiaztatze ateratzen den zerga-kuotaren aldeagatik.

2. ATALA

ONDASUNAK MORTIS CAUSA ESKURATZEKO ARAU BEREZIAK

29. artikulua. Jaraunspenezko ondasuntza zehaztea.

- 1. Kausadunaren banakako partaidetza zehazteko, kausatzailearen jaraunspen-ondasuntzan sartuko dira araudi honen 31-34 artikuluetan ezarritako ustezkotasunen bidez gehitutako ondasunak ere, ustezkotasun horien arabera pertsona zehatz batzuen zerga-oinarrian egotzi behar ez badira.
- 2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da kausadunaren banakako partaidetza zehazteko aplikatuko, baldin eta testamentugileak kausadun horiei ondasun zehatz batzuk eratziki badizkie eta jaraunspenezko ondasuntzako beste ondasunak baztertu baditu.

Ondasun zehatz batzuk eta gainerako jaraunspenezko ondasunetako partaidetza bat eratzikitzen badizkie, gainerako jaraunspenezko ondasunetan duten partaidetzaren arabera proportzioz dagokien ondasun gehituen zatia konputatuko zaie.

- 3. Araudi honen 21. artikuluan 3. Paragrafoan aipatuta dauden legatuen kasuan, Zergaren zenbatekoak ez dio gora eragingo legatu-hartzailearen kontura igorri beharreko likidazioaren zerga-oinarriari, baina ezein kasutan ez daiteke ken gainerako kausadunaren likidazioaren zerga-oinarria zehazteko.
- 4. Artikulu honetan xedatutakoaren ondoretarako, hala denean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatuta dauden titulartasun- eta titularkidetasun-ustezkotasunak aplikatuko dira, araudi honen 37. artikuluan xedatutakoaren kaltetan joan barik.

30. artikulua. Banakako partaidetzaren balio garbia zehaztea.

- 1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetzaren balio garbia finkatzeko, honakook kenduko dira ondasun edo eskubideen balioak:
 - a) Haien gaineko kargena, baldin eta karga horiek kendu ahal badira, Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bateginean eta araudi honetan ezarritakoaren arabera.

- b) Kentzeko eskatutako baldintzak betetzen dituzten zorrena.
 - c) Eskuratzean zerga-onuraren bat duten ondasun edo eskubideena, onurarentzat ezartzen den proportzioan.
 - d) Kendu ahal diren gastuen zenbatekoa, Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bateginean eta araudi honetan ezarritakoaren arabera.
2. Testamentugileak kargak ukitutako ondasunak edo eskuratzean zerga-onura duten ondasunak pertsona zehatz bati eratziki badizkio edo, testamentugileak xedatuta, zorra ordaintzea kausadunetarikoa baten kontura geratzen bada, kenkariak bertan sartuta dagoen pertsona edo kausaduna ukituko du.

31. artikulua. Hil aurretiko urtean kausatzailearenak izateagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Heriotzaren ziozko eskuraketetan, jaraunspenezko ondasuntzaren osagaitzat hartuko dira hil aurreko urtean oinordetzaren kausatzailearenak izan diren mota orotako ondasunak, baldin eta sinesgarriri frogatzen ez bada ondasun horiek hark eskualdatu zituela eta ondasunok jaraunsolea, legatu-hartzailea edo haietako baten edo kausatzailearen hirugarren gradura arteko ahaidea, ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) ez den pertsona baten eskuetan daudela. Ustekotasun hori hutsalduta geratuko da honakoa behar den bezala frogatuz:
- a) Ondasuntzan sartuta ageri direla, balio baliokidearekin, dirua edo desagertutako ondasunen lekuan subrogatutako beste ondasun batzuk.
 - b) Edo/eta ondasunak dituenak berauek dohainik eskuratu zituela eta araudi honen 16-20 artikuluetan ezarritako zerga-salbuespenen bat lortu zuela.

Aurreko a) letran ezarritakoaren ondoretarako, ondasunak kausatzailearenak izan zirela uste izango da, baldin eta haren izenean gordailuetan, kontu korranteetan edo aurrezki-kontuetan, bermedun maileguetan edo antzeko beste kontratu batzuetan edo zerga-banakaketetan, katastroetan, Zerga Erregistroetan, Jabetzaren Erregistroetan edo beste publiko batzuetan haren izenean erregistratuta ageri baziren.

Subrogatutako ondasunak edo dirua daudela frogatzen ez bada ere, interesatuek haiek benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. Ustekotasun honen babesean egindako batuketak kausadun guztiak ukituko ditu jaraunsoleak diren proportzio berean, baldin eta sinesgarriri kreditatzen ez bada ondasunak artikulua honen 1. Paragrafoan adierazitako pertsonaren bati eskualdatu zaizkiola. Bestela, pertsona hori bakarrik ukituko du, zeinek zerga-ondoretarako jaraunsoletasuna edo legatu-hartzailetasuna bereganatuko du ordurako bereganaturik ez badu.

32. artikulua. Hil aurreko hiru urteetan kausatzaileak gozamenerako eskuratzegatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Jaraunspenezko ondasuntzaren osagaitzat hartuko dira kausatzaileak hil aurreko hiru urteetan gozamenerako kostu bidez eta jaraunsoleak, legatu-hartzaileak edo haietako baten edo kausatzailearen hirugarren gradura arteko ahaide batek edo ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) jabetza soilak eskuratzeko ondasunak eta eskubideak.

Ustekotasun hori hutsalduta geratuko da ondokoa behar bezala frogatuta: jabetza soilaren eskuratzzaileak eskualdatzaileari dirua ordaindu ziola edo balio bereko ondasunak edo eskubideak eman zizkiola, haiek eskuratzeko nahiko direnak.

Subrogatutako ondasunak edo dirua daudela frogatzen ez bada ere, interesatuek eskubidea izango dute haiek kostu bidez benetan eskualdatu direla frogatzeko.

2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatian ezarritako ustezkotasuna ez da hartuko kontuan jabetza soilaren titularra gozamedunaren ezkontidea, izatezko bikoteko kidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), ondorengoa edo aurrekoa (odol-ahaidetasunaren arabera lerro zuzenean) edo gurasotzakoa edo umeordea bada.
3. Ustezkotasun honen babesean egindako batuketak jabetza soilaren eskuratzailari bakarrik egingo dio kalte; ondasunaren edo eskubidearen jabari osoa mortis causa eskuratzegatik likidatuko zaio. Likidazio hori eginez gero, ez da egingo jabari osoa sendotzegatik egin beharrekoa.

33. artikulua. Kausatzaileak bere jabetza soila hil aurretiko bost urteetan eskualdatzegatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Uste izango da ezen jaraunspenezko ondasuntzaren zati direla ondasun eta eskubideak, baldin eta kausatzaileak hil aurretiko bost urteetan gozamedunarako kostu bidez eskualdatu baditu eta beraien edo eskuratzailaren beste batzuen edo beste edozein biziarteko eskubideren gozamedun beretzat gorde baditu, ondasun edo eskubideok horrelako eragiketak legez egiten dituen Erakunde batekin egindako biziarteko errentaren kontratu baten bitartez eskualdatu ez badira.

Ustezkotasun hori hutsalduta geratuko da honakoa behar den bezala frogatuz: ezen jaraunspenezko ondasuntzan ageri direla jabetza soila eskualdatzegatik jasotako dirua edo balio baliokideko beste ondasun batzuk.

Subrogatutako ondasunak edo dirua daudela frogatzen ez bada ere, interesatuek haiek benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatian ezarritako ustezkotasuna ez da hartuko kontuan eskuratzaila eskualdatzailaren ezkontidea, izatezko bikoteko kidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), ondorengoa edo aurrekoa (odol-ahaidetasunaren arabera lerro zuzenean) edo gurasotzakoa edo umeordea bada.
3. Ustezkotasun honen babesean egindako batuketak jabetza soilaren eskuratzailari bakarrik egingo dio kalte; eskuratzaila hori legatu-hartzailetzat hartuko da jaraunlea ez bada, eta berari ondasun edo eskubidearen jabari osoa mortis causa eskuratzegatik likidatuko zaio likidatzekoa. Likidazio horren praktikan baztertuko da jabari osoa sendotzegatik dagokiona.

34. artikulua. Baloreak edo efektuak endosatzegatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Uste izango da ezen jaraunspenezko ondasuntzaren zati direla gordailutatutako baloreak eta efektuak, baldin eta beraien gordekinak endosatu badira eta endosatzailea hil baino lehen kendu ez badira edo gordailuzainaren liburuetan endosuaren berririk eman ez bada; eta endosatutako balio izendunak, transferentzia Erakunde jaulkitzailaren liburuetan kausatzailea hil aurretik agerrarazi ez bada.

Ustezkotasun hori hutsalduta geratuko da baldin eta behar bezala frogatu bada eskualdatutako ondasun eta efektuen prezioa edo balioaren baliokidetasuna saltzailaren edo lagatzailearen ondarera sartu dela eta haren jaraunspenaren inbentarioan ageri dela (berau kontutan hartu behar da Zerga likidatzeko) edo baloreak edo efektuak kentzea edo endosuaren berririk ematea ezin izan dela kausatzailea hil aurretik egiaztatu beronekin eta endosu-hartzailearekin zerikusirik ez duten kariengatik. Hala ere, ondasunok batu ahal dira araudi honen 31-33 artikuluetan xedatutakoaren babesean.

2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatian ezarritako ustezkotasuna ez da hartuko kontuan endosu-hartzailea eskualdatzailearen ezkontidea, izatezko bikoteko kidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), ondorengoa edo aurrekoa (odol-ahaidetasunaren araberrako lerro zuzenean) edo gurasotzakoa edo umeordea bada.
3. Artikulu honen babesean egindako batuketak baloreen endosu-hartzailea bakarrik ukituko du; berau legatu-hartzailezat hartuko da jaraunselea ez bada

35. artikulua. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga batuketatik eta kenkaritik baztertzea.

Ezin izango dira araudi honen 31-34 artikuluetan aipatuta dauden batuketak kontutan hartu, baldin eta ondasunak kostu bidez eskualdatzeagatik Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz honako kopurua ordaindu bada: ustezkotasunak ukitutako legatu-hartzaileari edo jaraunseleari Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan dagokion benetako batezbesteko tasa eskuratzeko denboran egiaztatutako haien balioari aplikatuz ateratzen den kopurua baino kopuru altuago bat. Era berean, batuketa horiek ez dira kontutan hartuko likidazioan balio hori sartu bada. Benetako batezbesteko karga-tasa araudi honen 25. artikuluaen 1. Paragrafoan ezarritako eran kalkulatu da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz sartutako kopurua txikiagoa bada, ondasunak batu ahalko dira, baina subjektu pasiboak eskubidea izango du Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz egindako likidaziotik haren zioz ordaindutakoa ken dakion.

36. artikulua. Jaraunspenezko ondasuntzari ondasunak gehitzeko prozedura.

1. Baliteke araudi honen 31-34 eta 37. artikuluetan aipatutakoari dagokion ondasunen bat kausatzailearen ondasun-inbentarioan ez aipatzea. Horrelakoetan, Zerga Administrazioak, berari heriotza-karizko eskuraketaren agiri, aitopen edo aitopen-likidazio ulergarria aurkeztu ondoren, hura aipatu ez dela egiaztatu ahalko du. Hori egiaztatzen badu, interesatuei jakinarazi eta hamabost eguneko epea emango die, zertarako-eta haiek ondasun hori kausatzaileak utzitako ondasuntzari gehitzeko beren adostasuna adierazi ahal izateko.
2. Interesatuek gehitze hori onartzen badute, egiten diren likidazioek zerga-oinarrian sartuko dute gehitu ahal diren ondasunen balioa, edo interesatuek sartutako autolikidazioak zuzenduko dira, eta behar diren likidazio osagarriak egingo dira, aitopen-prozedura hori aukeratu bada.
3. Baldin eta interesatuek, eman zaien epean, ondasunak gehitzeko proposamena atzera botatzen badute edo erantzuten ez badute, agiria likidatzeko edo autolikidazioak egiaztatzeko araudi honetan ezarritako jarduketekin jarraitu ahalko da; baina Zerga Administrazioak espediente bat instruituko du, azken batean, ondasunak gehitzeari buruz erabakitzeko: interesatuei hamabost eguneko epea emango die egokiesten dituzten alegazioak egin eta agiriak edo frogak ekar ditzaten. Epe hori pasatuta, Zerga Administrazioak gehitze horren bidezko tasunari buruzko erabakia hartu eta emango du.
4. Ondasunak gehitzearen aldeko erabakiaren aurka birjarpenezko edo ekonomia-administraziozko errekurtsioa jarri ahalko da.

Ondasunak gehitzearen aldeko administrazio-bidea bukatuta, Administrazioak behin-behineko likidazioak zuzendu edo bidezkoak diren osagarriak zuzendu ahalko ditu.

5. Espedientea tramitatzen den bitartean eta hari behin-betiko bukaera eman arte, bidezkoak diren likidazioak egiteko Administrazioaren ekintzaren preskripzio-epea etenda geratuko da.

37. artikulua. Zatitu ezin diren ondasunetan kausatzaileari eratziki daskiokeen proportzioaren gaineko ustezkotasuna.

Jaraunspen banatu gabeetan, ondasun-erkidegoetan eta nortasun juridikorik ez duten eta ekonomi batasuna edo banatutako ondarea osatzen duten gainerako erakundeetan sartuta dauden ondasunetan kausatzaileari eratziki ahal zaion partaidetza jaraunspenezko ondasuntzari gehituko zaio aplikatu ahal diren arauetatik eta interesatuen arteko itunetatik datorren proportzioan eta, Administrazioak itunon berri sinesgarriro ez bada, interesatuen kopuruaren proportzioz.

38. artikulua. Kargak kentzea.

1. Heriotza-karizko eskuraketetan, betiko kargak, aldi baterakoak edo luditu ahal direnak bakarrik kendu ahalko dira, baldin eta ondasunen gainean zuzenean ezarrita agertzen badira eta haien kapitala edo balioa benetan urritzen badute, hala nola, zentsuak eta pentsioak. Ez dira horrelakotzat hartuko eskuratzailari obligazio pertsonala ekartzen diotenak ez eskualdatutakoaren balioa urriarazten ez dutenak (esate baterako, hipotekak eta bahiak). Hala ere, kontutan hartuko dira hurrengo artikuluan ezarritako beharkizunak betez gero kendu ahal diren bermatzen duten zorrak.
2. Kendu ahal diren kargen edo pentsioen iraupena mugagabetzat hartuko da aurkeztutako agirietan berariaz agertzen ez bada.
3. Zentsuko balioztat hartuko da, kargak kentzeko, Kode Zibilaren arauen eta aplikatzekoak diren foru legerien arauen arabera zentsua luditzeke eman behar den kapitalarena.
4. Ondoreotarako, pentsioen balioa lortzeko pentsiook diruaren legezko korrituan kapitalizatuko dira eta emaitzako kapitaletik hartuko da gozamenak baloratzeko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia, pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa bada. Pentsioduna hildakoan iraungitzen ez diren aldi baterako pentsioak baloratzeko, ez da eraentzaila izango gozamenak baloratzeko finkatutako muga. Horrela lortutako balioa zuzentzeko, interesatuak peritu-tasazio kontrajarria burutzea eskatu ahalko du.

Pentsioa iraungitakoan, ondasunaren eskuratzailak pentsioa eratzen den unean indarrean egondako tarifaren arabera kendutako kapitalari dagokion Zerga ordaindu beharko du.

39. artikulua. Kausatzailearen zorrak kentzea.

1. Heriotzaren ziozko eskuraketetan, epailearen epai irmoan aintzatetsitako kausatzailearen zorrak ez ezik hark utzitako gainerakoak ere kendu ahal dira, baldin eta agiri publikoaren bitartez egiaztatzen badira, edo Kode Zibileko 1227. artikuluko beharkizunak betetzen dituen agiri pribatuaren bitartez, edo zor horiek badaudela beste era batean frogatzen bada. Ezin izango dira kendu zati alikuotaren legatu-hartzaileen edo jaraunspenaren edo haien ezkontideen, izatezko bikoteko kideen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), aurrekoen, ondorengoan edo neba-arreben esku geratzen direnak, jaraunspenari uko egin arren.

Administrazioak jaraunspenari eskatu ahal die agiri publikoan berresteko zorra dagoela, hartzekoduna aurrean dela.

2. Bereziki, kendu ahalko dira kausatzaileak Estatuaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Autonomia Erkidegoen eta beste Foru Aldundi edo Toki Korporazio batzuen zergen edo Gizarte Segurantzaren zoren zioz zordundutako kopuruak, jaraunspenezko ondasuntzaren administrazioaileek, albazeek edo jaraunspenari ordaintzen dituztenak, nahiz eta hura hil eta gero igorritako likidazioei dagozkien.
3. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga sartu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko, araudi honen hurrengo artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

40. artikulua. Zerga sartu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozedura.

Administrazioak igorritako likidazioak edo interesatuek egindako autolikidazioak sartu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozeduran honako erregelok hartuko dira kontutan:

- 1.a. Zorrok benetan kentzeko, berandutza-korriturik gabe itzuli behar da kendu ez den zorraren zenbatekoari dagokion Zergaren zatia. Zergaren zati hori sartutako kopuruaren eta likidazioa edo autolikidazioa egitean zorraren zenbatekoa kendu izan balitz sartuko zatekeenaren artean dagoen diferentzia da.
- 2.a. Interesatuek Zerga Administrazioari idazki bana aurkeztuko diote zuzentzekoa zuzen dezan eskatzeko, baita zorra dagoela edo zerga sartu ostean zorra ordaindu dela egiaztatzen duten agiriak ere.
- 3.a. Zorra egotea edo ordaindu izana sinesgarriro egiaztatutzat hartuz gero, zuzeneko zergen administratzaileak artikuluko honetako 1. erregelari aipatuta dagoen Zergaren zatia itzultzeko eskubidea aintzatesteko erabakia hartuko du. Bestela, ukapenezko erabakia hartuko du, eta interesatuei beraren berri jakinarazi eta beraren aurkako bidezko errekursoak adieraziko dizkie.
- 4.a. Artikulu honetan xedatutakoa ezin izango da aplikatu likidatzeko agiria, aitorpena edo aitorpen-likidazioa aurkezteko epea ahitu denetik hiru urte pasatu badira edo behin-betiko administrazio-likidazio irmoen kasuan.

41. artikulua. Gastuak kentzea.

1. Honakook kendu ahalko dira heriotza-karizko eskuraketetan jaraunspenezko ondasuntzatik:
 - a) Testamentu-agiriak edo testamentugabeziak auzi-izaera harturik testamentu-agirien edo testamentugabezien legebidezko ordezkapenarengatik jaraunse guztien komuneko interesean auzitan sortzen diren gastuak, baldin eta autoen testigantza behar bezala frogatzen badira; eta tartekaritzako gastuak, baldintza berdinetan, jarduketan testigantza kreditatzen badira.
 - b) Jaraunselek ordaindutako azken gaixotasunaren gastuak, baldin eta frogatzen badira.
 - c) Lurperaketako eta hileta-elizkizunetako gastuak, baldin eta frogatzen badira eta jaraunspenezko ondasuntzarekin proportzio egokirik badute, herri bakoitzeko erabilera eta ohituren arabera.
2. Ezin kenduko dira utzitako ondasuntzaren administratzailea kari duten gastuak.

3. ATALA INTER VIVOS DOAKO ESKURAKETETARAKO ARAU BEREZIAK

42. artikulua. Kargak kentzea.

1. Dohaintzan edo parekatu ahal den beste edozein inter vivos eta doako negozio juridikoren bitartez eskuratutako ondasun edo eskubideen balio garbia zehazteko, kargak kendu ahalko dira, baldin eta soilik baldin araudi honen 38. artikuluko 1. Paragrafoan ezarritako beharrezkoak betetzen badituzte.
2. Kargak kentzeko aplikatu ahalko dira artikuluko bereko 2., 3. eta 4. Paragrafoetako erregelak.

43. artikulua. Dohaintza-emailearen zorrak kentzea

1. Dohaintzan edo parekatu ahal den beste edozein inter vivos eta doako negozio juridikoren bitartez eskuratutako ondasun edo eskubideen balioetik, eskuratutako ondasun edo

eskubideoi dagokien eskubide errealarekin bermatuta dauden zorren zenbatekoa bakarrik kenduko da, baldin eta eskuratzailleak lehengo zordunaren kituketarekin bermatutako zorra ordaindu beharra sinesgarriro bereganatu badu.

2. Hala ere, eskuratzailleak ordaindutako zorrari dagokion Zergaren zatia itzul dakion eskubidea izango du, baldin eta, Zergaren zenbatekoa sartu eta gero, sinesgarriro kreditatzen badu hiru urteko epean ezen zorra bere kontura ordaindurik duela. Epe hori agiria aurkezteko arauzko epea bukatzen den egunean hasiko da zenbatzen, eta ezin etengo da. Zergaren zati hori itzultzeko, araudi honen hurrengo artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

44. artikulua. Dohaintza-hartzaileak ordaindutako dohaintza-emailearen zorrak kentzeko prozedura.

Dohaintza-emailearen zor bati dagokion Zergaren zatia itzultzeko prozeduran honako erregelok hartuko dira kontutan, baldin eta zor hori hark dohaintzan eman dituen ondasunei dagokien eskubide errealarekin bermatuta badago eta zor hori dohaintza-hartzaileak ordaindu badu dohaintzari dagokion Zerga sartu ostean.

- 1.a. Ordaindu den eta dohaintzaren zerga-oinarrian kendu ez den zorrari dagokion Zergaren zatitza hartuko da sartutako kopuruaren eta likidazioa edo autolikidazioa egitean zorraren zenbatekoa kendu izan balitz sartuko zatekeenaren artean dagoen diferentzia.
- 2.a. Interesatuak Zerga Administrazioari idazki bana aurkeztuko diote, hiru urteko epean, zuzentzekoa zuzen dezan eskatzeko, baita zorra beren kontura ordaindu dutela egiaztatzen duten agiriak ere. Epe hori beharrezko agiria aurkezteko arauzko epea bukatzen denean hasiko da zenbatzen.
- 3.a. Dohaintza-hartzaileak zorra ordaindu duela sinesgarriro kreditatu duela uste bada, zuzeneko zergen administrazioarekin Zergaren zatia itzultzeko eskubidea aintzatesteko erabakia hartuko du, berandutza-korriturik barnean hartuko ez duena. Bestela, itzulketa ukatzeko erabakia hartuko du, eta interesatuei beraren berri jakinarazi eta beraren aurkako bidezko errekursoak adieraziko dizkie.

45. artikulua. Ezkontzaren sozietateak komuneko ondasunak dohaintzan ematea.

...

4. ATALA ASEGURU-KONTRATUEN ARLOKO ARAU BEREZIAK

46. artikulua. Ezkontide batek ezkontzaren sozietatearen pentzuan kontratatutako aseguruak.

1. Asegurua ezkontide batek irabazpidezko sozietatearen pentzuan kontratatu badu eta onuraduna bizirik dirauen ezkontidea bada, jasotako kopuru osoa sartuko da zerga-oinarrian.
2. Era berean, artikulua honetako aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta senar-emazteen ekonomi araubidea Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaria buruzko Legean araupetuta dagoen ondasunen foru komunikazioarena bada eta aseguruak irabazitako ondasunen edo hildako ezkontidearengandiko ondasunen pentzuan kontratatu bada, eta, azken kasu horretan, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaria buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 96. artikuluan ezarritako ondasunen foru komunikazio sendotu bada.
3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

5. ATALA BALIOAK EGIAZTATZEA

1. AZPIATALA ARAU OROKORRAK

47. artikulua. Arau orokorrak.

1. Interesatuek dohainik lortutako eskubide eta eskubide bakoitzari eratzikitzen dioten benetako balioa zainpetu beharko dute araudi honen 85. artikuluaaren arabera aurkeztu behar duten aitorpenean.

Hiriko ondasun higiezin kasuan, interesatuek eskualdatutako ondasunen benetako balio bezala zainpetu ahalko dute eratziki daitekeen gutxieneko balioa zehaztekoak diren eta apirilaren 20ko 63/1999 Foru Dekretuak ezarrita dauden arau teknikoak aplikatuz ateratzen dena. Foru dekretu horren bitartez onetsi dira hiriko ondasun higieziari eratziki dakiekeen gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak eta berauek garatzeko xedapen arauemaileak.

Ondasun batzuen merkatuko batezbesteko prezioei begira taula ofizialak onesten ditu aldizka Zerga Administrazioak. Ondasun horien kasuan, interesatuek eskualdatutako ondasunen benetako balio bezala zainpetu ahalko dute taulak aplikatuz ateratzen dena.

2. Edonola ere, Administrazioak eskualdatutako ondasunen eta eskubideen benetako balioa egiaztatu ahalko du.
3. Berau egiaztatzeko, Administrazioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 52. artikuluan ezarritako bideak baliatuko ditu.

Era berean, aurreko ahapaldian aipatuta dagoen balio-egiaztaketarako honako bide edo bitartekook erabili ahalko dira:

- a) Hiriko ondasun higiezin kasuan, eratziki daitekeen gutxieneko balioa zehaztekoak diren eta arau ezarrita dauden arau teknikoak, baldin eta diren ondasunei aplikatu ahal bazaizkie.
 - b) Ondasun batzuen merkatuko batezbesteko prezioei begira taula ofizialak onesten ditu aldizka Zerga Administrazioak. Ondasun horien kasuan, taulak izan daitezke balioak egiaztatzeko bideak.
4. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, hiriko ondasun higiezin kasuan, ez da bidezkoa izango beste ezein bideren bidez egiaztatzea, baldin eta interesatuek eskualdatutako ondasunen benetako balio bezala zainpetu badute eratziki daitekeen gutxieneko balioa zehaztekoak diren eta apirilaren 20ko 63/1999 Foru Dekretuak ezarrita dauden arau teknikoak aplikatuz ateratzen den balioa. Foru dekretu horren bitartez onetsi dira hiriko ondasun higieziari eratziki dakiekeen gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak eta berauek garatzeko xedapen arau-emaileak.

Ondasun batzuen merkatuko batezbesteko prezioei begira taula ofizialak onesten ditu aldizka Zerga Administrazioak. Era berean, ondasun horien kasuan, ez da bidezkoa izango beste ezein bideren bidez egiaztatzea, baldin eta interesatuek eskualdatutako ondasunen benetako balio bezala zainpetu badute taulak aplikatuz ateratzen dena.

5. Administrazioak egiaztatutako balioa nagusituko zaio, hala denean, interesatuek aitortutako balioari, azken balio hori handiagoa izanik ere.
6. Administrazioak egiaztatutako balioak, handiagoa bada Ondarearen gaineko Zergaren beharrezko erregela aplikatzeko, ondoreak ekarriko ditu aribideko urteko eta hurrengoetako Zergarengatik eskuratzailaren kontura egin beharreko likidazioei begira.

48. artikulua. Interesatuei jakinaraztea.

1. Oro har, Zerga Administrazioak balioak egiaztatetik datorren emaitza berariaz jakinaraziko zaie zerga honen subjektu pasiboetara behar bezain motibatuta dagoen eta ondorengo administraziozko likidazio-egintzatik lokabe den administrazio-egintzaren bitartez. Ondore horietarako, kontutan hartuko da araudi honen 51. artikuluan xedatuta dagoena.

Ondoreotarako, baldin eta balioak egiaztatzeko erabilitako bitartekoa Zergei buruzko Foru Orokorrean ezarrita dagoenetako bat eta Administrazioaren perituen irizpenaren ezberdina bada, behar bezain motibatutzat joko da balioak egiaztatzearen berri emateko administrazio-egintza. Horretarako, laburki bada ere, honakook adierazi behar ditu:

- a) Baloratzeko aukeratutako metodoa.
 - b) Egiaztatutako balioa zehazteko egindako kalkuluak.
 - c) Egiaztatzean eskualdatutako elementuari emandako balioa.
2. Administrazioak egiaztatutako balioek eskualdatzaileentzat doako inter vivos eskualdaketa zerga-eraginik izan ahal badute, balioak egiaztatzeko egintzaren berri emango zaie haiei bereiz, zertarako-eta berauek birjarpenezko edo ekonomia-administraziozko errekurtsua jarriz balio horiek aurkaratu eta berauek peritu-tasazio kontrajarriaren bitartez zuzentzea eskatu ahal izateko, araudi honen 50. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

Erreklamazioa edo zuzenketa osorik edo alde onartzen bada, emandako ebazpenak mesede egingo die zerga honen subjektu pasiboetara ere.

49. artikulua. Likidazioarekin batera jakinaraztea.

1. Araudi honen 48. artikuluan xedatuta dagoena gorabehera, Zerga Administrazioak interesatuei jakinarazi ahalko die, batera eta administrazio-egintza bakarrean, araudi honen 47. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egindako balio-egiaztaketaren berri, beharrezko likidazioarekin batera.
2. Horrelakoetan, berehala etengo da, bermerik jarri barik, egindako likidaziotik ateratzen den zerga-zorra sartzea, interesatuek emandako administrazio-egintza aurkaratzen dutenean, baldin eta aurkaratzearen zioa Administrazioak egindako balio-egiaztaketa bada.

Ondore berberak izango ditu interesatuek ondasunen eta eskubideen balioa finkatzeko peritu-tasazio kontrajarriaren aparteko bidea erabil dadin eskatzeak.

3. Araudi honen 48. artikuluan xedatuta dagoenarekin bat etorririk balioak egiaztatzeko administrazio-egintza banan-banan jakinarazi badu, Administrazioak ez du beharrezko likidaziorik egingo egindako balio-egiaztaketak irmotasuna hartu arte, eta epealdi horretan zehar berandutza-korrituak sortuko dira.

50. artikulua. Balioak egiaztatzea aurkaratzea.

1. Ebaluazio-prozeduratik datozen administrazio-egintzak, banan-banan zein beharrezko likidazioarekin batera jakinarazten direlarik, ekonomia-administraziozko bidean aurkaratu ahalko dira balioak egiaztatzeari dagokionean, hala denean birjarpenezko errekurtsu egokia bideratu ondoren, aurkaratzearen oinarriak zerga-izaerako Zuzenbidezko egitateak edo kontuak badira.
2. Eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioak egiaztatzearen ondorioz sortzen diren ezberdintasunak, baldin eta balio horien gainekoak badira, peritu-tasazio kontrajarriaren bitartez ebatzi ahalko dira, eta ezin izango dira ekonomia-administraziozko bidearen bitartez ebatzi.

51. artikulua. Likidazioak.

1. Baldin eta egiaztatzeko beharrezkoa bada peritu-tasazioaren aparteko bidea erabiltzea, ez da likidazioa egingo tasazio-eragiketak burutu arte.

Administrazioak egindako balio-egiaztaketa eta beharrezko likidazioa batera jakinaraziz gero, likidazioa etenda geratuko da araudi honen 49. artikuluan 2. Paragrafoan xedatuta dagoenarekin bat etorririk.

Hala ere, Jabetzaren Erregistroan erregistratu ahalko dute erregistratu ahal diren ondasunak, baloratzeko eragiketak bukatutakoan egin daitekeen likidazioaren emaitzei loturik geratzen direlako oharrarekin. Horretarako, frogatu behar da ezen araudi honen 85. artikuluan 2. Paragrafoan eta 105. artikuluan aipatuta dagoen aitorten-likidazioari dagokion sarrera burutu dela.

2. Aitortutako balioengatiko likidazioa egingo da, noski, baldin eta araudi honen 105. artikuluan 1. Paragrafoan aipatuta dagoen autolikidazioa egitea aukeratu ez bada edo artikuluan beraren 2. Paragrafoan xedatuta dagoenaren arabera hura egitea beharrezkoa ez bada eta peritu-tasazioaren aparteko bidea erabili behar bada. Hala ere, aurrera jarraitu ahalko dute tasazio-eragiketek. Eragiketon emaitza kontutan hartu behar da, hala denean, bidezko likidazio osagarria egiteko.

Halaber, Administrazioak egindako balio-egiaztaketa eta beharrezko likidazioa batera jakinaraziz gero, likidazioa etenda geratuko da araudi honen 49. artikuluan 2. Paragrafoan xedatuta dagoenarekin bat etorririk.

Hala ere, lehenengo likidazioa ordaindu ostean, Jabetzaren Erregistroan erregistratu ahalko dute erregistratu ahal diren ondasunak, azken likidazioaren emaitzei loturik geratzen direlako oharrarekin.

3. Halaber, aitortutako balioengatiko likidazioa egingo da, noski, baldin eta araudi honen 105. artikuluan 1. Paragrafoan aipatuta dagoen autolikidazioa egitea aukeratu ez bada edo artikuluan beraren 2. Paragrafoan xedatuta dagoenaren arabera hura egitea beharrezkoa ez bada eta Bulego Likidatzailean frogatzen bada ezen Administrazioak egin eta banakako administrazio-egintzaren bitartez jakinarazitako balio-egiaztaketaren aurka ekonomia-administraziozko erreklamazioa jarri dela. Hala ere, espediente ebatzi ostean, bidezkoak diren likidazio osagarriak egin ahalko dira. Hori frogatu ezean, egiaztatutako balioaren gainean likidazioa egingo da baina, bidezkoak diren zuzenketak kontutan hartuko dira eta ez da aplikatuko, kasu horretan, araudi honen 49. artikuluan xedatuta dagoena.

Balioak egiaztatzea eta beharrezko likidazioa batera jakinaraziz gero, kontutan hartuko da araudi honen 49. artikuluan ezarrita dagoena, baina berehala etengo da, soilik, balioak egiaztatzearen ondorioz zehaztutako zerga-oinarria gehitzeari dagokion zerga-zorra sartzea, eta interesatuek aitortutako balioei dagokien zatia sartu beharko da.

2. AZPIATALA PERITU-TASAZIO KONTRAJARRIA

52. artikulua. Arau orokorrak.

1. Araudi honen 47. artikuluan aipatuta dauden balioak egiaztatzeko lortutako emaitza zuzentzeko, interesatuek, edozein kasutan, peritu-tasazio kontrajarria burutzea bultzatu ahalko dute Administrazioak egiaztatutako balioen oinarriaren gainean egindako likidazioaren aurka bidezkoa den lehenengo erreklamazioaren epearen barruan aurkeztutako eskabidearen bitartez.

Aurreko ahapaldian aipatuta dagoen epea jarritako errekurtsua edo erreklamazioa ebazteko balio duen erabakiaren administrazio-bideko irimotasunaren datan hasiko da zenbatzen, baldin eta interesatuak uste badu ezen ez daudela jakinarazpenean behar bezala adierazirik aitortutako balioak igotzeko kontutan hartutako datuak eta zioak, eta

birjarpenezko errekurtsioa edo ekonomia-administraziozko erreklamazioa jarritz alderauzketa salatzen badu eta peritu-tasazio kontrajarria eragiteko eskubidea beretzat gordetzen badu.

2. Peritu-tasazioa dohaintza-emaelek eragiten badute araudi honen 48. artikulua 2. Paragrafoan xedatuta dagoenaren ondorioz, eskabide-idazkia egiaztatetik ateratzen diren balioak banan-banan jakinarazi oste-osteko hamabost egunetan aurkeztu beharko da.

53. artikulua. Prozedura.

Peritu-tasazio kontrajarria tramitatzea bidezkoa izango da, baldin eta interesatuek hori eskatzen badute edo Bulego Likidatzaileak hori erabakitzen badu, eta honako erregelok hartuko dira kontutan horretarako:

- 1.a. Bulego Likidatzaileak lana dagokien zerbitzu teknikoei ondasun eta eskubideen zerrenda bat bidaliko die ondasun eta eskubideon izaerarako egokia den titulua duten langileek dagokien txosten teknikoak hamabost eguneko epean egin dezaten, baldin eta Administrazioko peritu batek zioztaturiko balorazioa espedientean ageri ez bada jada. Izan ere, baliteke, balioa egiaztatzeko, Zergei buruzko Foru Arauaren 52.1.d artikuluan ezarrita dagoen eta «Administrazioko perituen irizpen»aren ezberdina den bide bat erabili izana. Txosten tekniko horretan agerrarazi behar dituzte, egindako balorazioaren emaitza ezezik, horretarako kontutan hartutako oinarriak ere, gutxienez. Horretarako guztirako kontutan hartuko da araudi honen 48. artikulua 1. Paragrafoan xedatuta dagoena.
- 2.a. Bulego Likidatzaile eskudunak Administrazioko perituaren balorazioa edo Administrazioak balioak egiaztatzeko bide bezala «Administrazioko perituen irizpen»ekoa erabili delako espedientean ageri dena jasota, balorazioa interesatuei jakinaraziko zaie eta hamabost eguneko epea emango zaie peritu bat izendatu ahal izan dezaten. Peritu horrek baloratu beharreko ondasun eta eskubideen izaerarako egokia den titulua izan beharko du. Zergadunak izendatutako perituari ondasun eta eskubideen zerrenda emango zaio dagokion txosten teknikoak hamabost eguneko beste epe batean egin dezan. Txosten tekniko horrek oinarritzaturik egon beharko du.
- 3.a. Interesatuak hamabost eguneko epean periturik izendatzen ez badu, uste izango da ezen interesatua Administrazioak egiaztatutako balioarekin bat datorrela, eta espedientea bukatutzat emango da, eta, horren ondorioz, aitortutako balioarengatik behin-behinean igorritakoaren likidazio osagarria igorriko da.
- 4.a. Perituak ondasun eta eskubideen balioaren gainean ados ez badaude eta Administrazioko perituaren tasazioa interesatuaren perituak egindakoa baino 100eko 10etik gora txiki edo handiagoa bada, zerga-oinarria zehazteko Administrazioko perituak egindakoa nagusituko da. Horrelakoetan, bidezkoa den likidazio osagarria igorriko da berandutza-korrituekin, eta subjektu pasiboak berau sartuko du Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-Bilketari buruzko Araudian ezarritako epeetan.
- 5.a. Administrazioko perituaren tasazioak aurreko erregelari aipaturiko mugak gainditzen baditu, Ogasun zuzendari nagusiak hirugarren peritua zozketa publikoaren bidez izendatuko du elkargo, elkarte edo korporazio profesionalek bidalitako zerrendetan ageri diren elkargokoen edo elkartekoen artetik, Zergei buruzko Foru Arauaren 52.2 artikuluan xedatuta dagoena betetzeko. Peritu hori izendatuta, izendatutako pertsonari edo erakundeari bidaliko zaizkio ondasunen eta eskubideen zerrenda eta aurreko perituen txosten teknikoaren kopia, hamabost eguneko epean haietakoren bat berrets edo beste balorazio bat egin dezan. Balorazio hori behin-betikoa izango da eta beraren aurka ezin errekurtsorik jarriko da.
- 6.a. irugarren peritua izendatu behar denean, subjektu pasiboak, hark peritu-tasazioa egin aurretik, tasazio horri dagozkion ogibidesari zenbatekoa gordailatu beharko ditu: dagozkion kopuruak utziko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren Sarrera Kontrolerako Zerbitzuan, hirugarren peritua izendatzearen berri ematen den egunean zenbatzen hasiko den hamar eguneko epean.

Subjektu pasiboak zenbateko hori bertan gordailatu ezean, uste izango da hark Administrazioako perituak egindako balorazioa onartu duela, balorazio bion arteko aldea edozer delarik ere.

- 7.a. Peritu-tasazio kontrajarririk lortutako emaitza ikusita, Bulego Likidatzaileak hasierako likidazioa berretsiko du edo bidezkoa den osagarria igorriko du berandutza-korrituekin. Hala ere, berau birjarpenezko edo ekonomia-administraziozko bidean aurkaratu ahalko da.
- 8.a. Subjektu pasiboaren perituaren ogibidesariak hark ordainduko ditu. Hirugarren perituak egindako tasazioa subjektu pasiboak aitortutako balioa baino 100eko 20etik gora handi edo txikiagoa bada, peritutzaren gastuak subjektu pasiboak berak ordainduko ditu, halaber. Tasazio hori muga horien barruan badago, aldiz, gastuok Administrazioaren konturakoak izango dira eta subjektu pasiboak eskubidea izango du gordailuak sorrarazitako gastuak itzul dakizkion.
- 9.a. Subjektu pasiboak hirugarren perituak sortutako gastu eta ogibidesariak ordaindu behar baditu, Foru Aldundiak subjektu pasiboaren kontura ordainduko dizkio gastu eta ogibidesariok hirugarren perituari, aurretik gordailutatutakoa eskuratu ahalko duelarik.

3. AZPIATALA

FORU ALDUNDIAK ONDASUN EDO ESKUBIDEAK ESKURATZEKO DUEN LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEA

54. artikulua. Foru Aldundiak ondasun edo eskubideak eskuratzeko duen lehentasunezko eskubidea.

1. Foru Aldundiak eskualdatu diren ondasun edo eskubideak eskuratzeko eskubidea izango du, baldin eta haien balio egiaztatua aitortutakoa baino 100eko 50etik goragokoa bada eta aitortutako balioa Ondarearen gaineko Zergaren erregelak aplikatuz ateratzen dena baino txikiagoa bada. Eskubide hori Zergaren likidazioaren irmotasun-dataren oste-osteko sei hilabeteetan bakarrik erabili ahalko da.
2. Foru Aldundiak ondasun edo eskubideak eskuratzeko duen eskubidea benetan erabiliz gero, den ondasun edo eskubidea atzeman aurretik, interesatuari ordainduko zaio araudi honen 85. artikuluan aipatuta dagoen aitortpenaren haren benetakoa balio bezala ageri den kopurua.
3. Baldin eta interesatuak, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz, ondasun edo eskubideak eskuratzeko kopururik sartu badu eta Foru Aldundiak ondasun edo eskubideak eskuratzeko duen eta artikulua honetan aintzatetsita dagoen eskubidea erabili badu, interesatuari itzuliko zaio, arauz zehazten den eran, berak ordaindutako kopuruaren gaineko gaindikinari dagokion Zergaren zatia.

Itzuli behar den Zergaren zatitza hartuko da sartutako kopuruaren eta likidaziorako kontutan hartutako oinarrian Administrazioak egiaztatutako balioaren ordean aitortutako balioa konputatu izan balitz sartuko zatekeenaren arteko aldea.

55. artikulua. Foru Aldundiak ondasun edo eskubideak eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura.

Foru Aldundiak ondasun edo eskubideak eskuratzeko den eta araudi honen 54. artikuluan aintzatetsita dagoen eskubidea erabili ahal izateko prozeduran honako erregelok hartuko dira kontutan:

- 1.a. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz behin-betiko likidazioak egin dituen Bulego Likidatzaileak Ogasun zuzendari nagusiari bidaliko dio, haiek irmotasuna harturik duten egunaren hurrengo hilabetean, aurkeztutako agirien edo aitortpenen zerrenda, baldin eta berarekin ondasun edo eskubiderik sartzen bada eta horko ondasun edo eskubideek Foru Aldundiak eskuratzeko eskubidea erabiltzeko araudi honen 54. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Zerrenda horrekin batera, Foru Aldundiak har

ditzakeen ondasun zehatzak adierazi behar dizkio, eta eskuratzailen izena, helbidea eta gainerako inguruabar pertsonalak.

2.a. Zerrenda hori jaso ondoren-ondorengo hilabetean, Ogasun zuzendari nagusiak beharrezko txostenak bilduko ditu eta, berauek ikusita, erabakiko du zein ondasunen gainean erabiliko du Foru Aldundiak lehentasunez eskuratzeko eskubidea, hori guztia 1. erregelan aipatuta dauden likidazioak irmo geratzen diren egunaren osteko hirugarren hilabetean egingo duelarik.

3.a. Ogasun zuzendari nagusiaren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie eta hilabeteko epea emango zaie egokietsi eta aurkeztu ahal dituzten alegazioak aurkez ditzaten. Era berean, ebazpen hori Jabetzaren Erregistrora, Merkataritzakora, Ondasun Higiezinenera edo Espainiako Patente eta Marka Bulegora lekualdatuko da, zertarako-eta haiek Foru Aldundiak den ondasun edo eskubidea eskuratzeko eskubidea erabili ahal duela ohar bidez agerrarazteko.

Aurreko ahapaldian aipatuta dagoen lotura-oharra berau egin eta bi urteetara iraungiko da.

4.a. Espedienteari bukaera eman eta egindako jarduketak ikusita, Ogasun eta Finantzen foru diputatuari proposatuko zaio eman behar den ebazpena.

5.a. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren Foru Agindua interesatuei jakinaraziko zaie eta administrazioarekiko auzibidez aurkaratu ahalko da.

56. artikulua. Ordaindutako Zerga itzultzea.

Foru Aldundiak ondasun edo eskubideak eskuratzeko erabiltzea erabakitzeko balio duen beharrezko Foru Agindua emanda, erabakiaren kausa den likidazioa egin duen Bulego Likidatzaileak ofizios tramitatuko du ordaindutako Zerga itzultzeko espedientea.

Espedientea tramitatzearen berri jakinaraziko zaie interesatuei, bertaratu eta egokiesten dituzten alegazioak aurkeztu eta agiriak eta frogak ekarri ahal izan ditzaten.

V. KAPITULUA OINARRI LIKIDAKORRA

57. artikulua. Zerga-oinarriaren txikipenak.

1. Oinarri likidakorra zehazteko, zerga-oinarriari aplikatu behar zaizkio araudi honen kapitulu honetan ezarritako txikipenak.

Txikipenak aplikatzea bidezkoa ez bada eta, hortaz, txikipenik aplikatzen ez bada, oinarri likidakorra zerga-oinarriarekin bat etorriko da.

2. Oinarri likidakorra lortzeko honako txikipenok aplikatuko dira, araudi honetako 58-61 bitarteko artikuluetan ezarrita dagoen bezala:

Ahaidetasunaren ziozko txikipenak.

Euskal Herriaren Herri Zorrarekin lotutako txikipenak.

Ohiko etxebizitzarekin lotutako txikipenak.

Nekazaritzarekin lotutako txikipenak.

3. Aurreko paragrafo bietan ezarritakoa aplikatuta lortutako oinarri likidakorra inoiz ezin izango da negatiboa izan.

58. artikulua. Ahaidetasunaren ziozko txikipenak.

1. Araudi honetako 59-61 bitarteko artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, mortis causa eskuraketetan eta bestelakoetan, oinarri likidakorra kalkulatzeko ahaidetasun graduen arabera txikipena aplikatu behar zaio zerga-oinarriari; hona txikipenak:
 - a) I. taldea. Bigarren graduko alboko odol-ahaideen eskuraketak, 36.000 euro.
 - b) II. taldea. Hirugarren graduko alboko odol-ahaideen eta ezkontza eta 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteen bidezko aurrekoen eta ondoren eskualdaketak, 18.000 euro.
 - c) III. taldea. Laugarren mailako alboko ahaideen, bigarren mailako alboko ahaideen, hirugarren mailako ahaideen eta urrunagoko ahaideen eta arrotzen eskualdaketak; ez dago txikipenik
2. Minusbalio fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten pertsonen mortis causa eskuraketetan 72.000 euroko txikipena aplikatuko da, eskuratzailerari kausatzailearekin duen ahaidetasun graduagatik artikulua honetako 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera dagokion txikipena kontuan hartu gabe.

Honen ondoretarako, ezinduek txikipena aplikatzeko eskubidea izango dute, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 84. artikuluan eta berau garatzen duten arau-xedapenetan artikulua horretan araupetutako kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

3. Dohaintzako edo beronekin erkatu ahal den erako eskuraketetan, oinarri likidakorra zerga-oinarriarekin bat etorriko da, araudi honen 60. eta 61. artikuluetan aipatuta dauden zerga-oinarriaren txikipenak aplikatu ezin badira.
4. Biziaren gaineko aseguruaren kariatz jasotako kopuruak eskuratzen direnean, oinarri likidakorra lortzeko zerga-oinarriaren honako txikipenok aplikatuko dira aseguruaren kontratugilearen edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailaren arabera:
 - a) 100eko 50ekoa, ahaidetasun maila hori I. eta II. taldeetan aipaturikoa bada.
 - b) 100eko 10ekoa, ahaidetasun maila hori III. taldeetan aipaturikoa bada.

Letrotan aipatuta dauden ahaidetasun-taldeak artikulua honen 1. Paragrafoan definituta daudenak dira.

Hala ere, enpresek beren enplegatuentzat kontrataturiko aseguruaren edo taldekakoetan, aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailaren arabera egingo dira aurreko txikipenak.

Terrorismoaren ondoriozko bizi-aseguruaren eta nazioarteko misio humanitarioetan eta bake-misioetan egiten diren zerbitzuaren %100eko txikipena aplikatuko da. Txikipen hau onuradun izan daitezkeen guztiei aplikatuko zaie.

5. Banako enpresa edo lanbide negozioa «mortis causa» eskuratzen badute hirugarren gradura arteko alboko ahaideek, edo erakundeen partaidetzak, eta eskuraketari Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 17ko 11/1991 Foru Arauko 4. artikuluko 10. idatz-zatiko 2. zenbakian araupetutako salbuespena aplikatu ahal bazaio, Zergaren oinarriaren %95eko txikipena aplikatu ahal izango da, baldin eta ondorengorik edo umeorderik ez badago eta eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo 5 urteetan, eskuratzailerari hori baino lehen hil ezean.

Halaber, txikipen hori bera aplikatuko da aurreko paragrafoan aipaturiko banako enpresaren, lanbide negozioaren edo erakundeen partaidetzaren gaineko gozamen eskubideak edo gozamenaren iraungipenaren ondoriozko eskubide ekonomikoak

eskuratzen direnean ere, baldin eta heriotza dela eta eskuratzailerean jabetza soila sendotzen bada edo horrek gozamina amaitutakoan zor diren eskubideak jasotzen baditu ukitutako enpresa, negozio edo erakundearen partaidetza gisa.

59. artikulua. Euskal Herriaren Herri Zorreakin otutako txikiak.

1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak jaulkitako edozein zorpeketa motaren legatu edo jaraunspenarengatiko eskuraketetan, hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiek edo Lurraldeko Toki Erakundeek 100eko 90eko txikiak izango dute beren zerga-oinarrian, baldin eta eskuratutakoak kausatzailearen ondarean gutxienez Zerga sortzen den egunaren aurre-aurreko hilabeteko epean egon badira.
2. Ehuneko bereko txikiak izango dute talde-inbertsioko erakundearen partaidetzen edo tituluen jaraunspenarengatiko edo legatuarengatiko eskuraketek, baldin eta aurreko paragrafoan ezarritako egonaldi-beharkizuna betetzen bada eta erakunde horiek beren aktiboaren 100eko 90na (gutxienez) aurreko paragrafoan aipaturik dauden baloreetan inbertiturik badute.

Aurreko ahapaldian aipatuta dauden inbertsioei inbertsioei begira, inbertsio kopuruaren gaineko beharkizuna betetzat joko da, baldin eta 100eko 90eko ehunekoa egutegiko urteko 300 egunetan edo gehiagotan mantentzen bada.

Eskuraketak urte bakoitzeko urtarilaren 1ean egiten ez badira, aurreko ahapaldian aipatuta dagoen ehunekoa Zerga sortzen den egunaren aurre-aurreko 365 egunetariko 300 egunetan mantendu beharko da gutxienez.

3. Ehuneko bereko txikiak izango dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen Erakunde Autonomiadunek eta merkataritza-sozietateek jaulkitako zorpeketa-titulu ordezkagarrien legatuarengatiko edo jaraunspenarengatiko eskuraketek, baldin eta aurreko 1. Paragrafoan ezarritako egonaldi-beharkizuna betetzen bada eta, merkataritza-sozietateen kasuan, beraien sozietate-kapital osoa erakunde horienak bada.
4. Ehuneko bereko txikiak izan ahalko dute partzuergo batek edo beste edozein izakik egindako zor-jaulkimenek, baldin eta artikuluko honetako aurreko 1. Paragrafoan ezarritako egonaldi-beharkizuna betetzen bada, eta izaki horretan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen sozietate-kapitaleko partaidetza gehiengoduna bada eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak kasu bakoitzerako berariaz hori erabakitzen badu, eta hori zorra jaulki baino lehen eskatuz gero.

60. artikulua. Ohiko etxebizitzarekin lotutako txikiak.

1. Ohiko etxebizitzaren jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalera eskubidea edo erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubidea inter vivos edo mortis causa dohainik eskuratzen bada, %95eko txikiak aplikatuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren oinarrian, ondoko betekizunak betez gero:
 - a) Etxebizitza eskuratzailera eskualdatzailearekin eskualdaketa aurreko bi urteetan bizi izan den ohiko etxebizitza izan behar da.
 - b) Zerga oinarriaren txikiaren zenbatekoa ezin da izan 200.000 euro baino gehiago.
2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatiko a) letran ezarritako bizikidetasunaren betekizuna betetzen dela egiaztatzeko eroldaziurtagiria eta aldi horretan etenik gabe elkarrekin bizi izan direla frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, zergadunak Zuzenbidea onartutako edozein bide erabili ahal du betekizun hori betetzen dela frogatzeko.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen bada, txikipena bertan ezarritako zenbatekoaren mugarekin aplikatuko da:mugaz gaindiko kopuruek ez dute txikipenik izango.
4. Artikulu honetan xedatutakoaren ondoreetarako, txikipena aplikatzeko ezinbestekoa da kontutan hartutako aldiaren, gutxienez, etxebizitza eskualdatzailearen eta eskuratzailearen ohiko etxebizitza izatea. Ohiko etxebizitza hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 89.8. artikuluan eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritako betekizunak betetzen dituen.

61. artikulua. Nekazaritzarekin lotutako txikipenak.

1. Araudi honen 16-20 artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuko da. Alabaina, lehentasunezko ustiategi baten titularrak edo eskuraketaren ondorioz horrelakotzat har daitekeenarenak beste nekazaritza-ustiategi oso baten biziarteko gozamina edo jabari osoa dohainik, inter vivos edo mortis causa eskuratzeko Zergaren zerga-oinarriaren 100eko 90eko txikipena izango du, baldin eta, hura eskualdatzearen ondorioz, eskuratzailearen ustiategiaren lehentasunezko izaera aldatzen ez bada. Ustiategia eskritura publikoan eskualdatu beharko da.

Aurreko ahapaldian aipaturiko ondoreetarako, nekazaritza-ustiategi bat bere osotasunean eskualdatuko da, etxebizitza baztertzen bada ere.

Txikipena egin dadin, eskuraketaren eskritura publikoan eta Jabetzaren Erregistroan agerraraziko da, hala denean, ezen, eskuratutako finak hurrengo bost urteetako epean besterendu, errentan eman edo lagatzen badira, aurretik frogatu beharko dela Zerga edo beronen zatia ordaindu dela. Zati hori egindako txikipenaren eta berandutza-korrituen ondorioz sartuko ez zena da. Salbuespen hori ezinbesteko balizkoetan eginda dago.

2. Lehentasunezko ustiategi baten titularrak edo eskuraketaren ondorioz horrelakotzat har daitekeenarenak landa-finka baten edo nekazaritza-ustiategi baten zati baten biziarteko gozamina edo jabari osoa dohainik, inter vivos edo mortis causa eskuratzeko Zergaren zerga-oinarriaren 100eko 75eko txikipena izango du.

Txikipen hori aplikatu ahal izateko, hori eskritura publikoan eskualdatu beharko da eta aurreko paragrafoko azken ahapaldian ezarritakoa bete behar da.

3. Nekazaritza-ustiategien titularrek lurak ustiategiaren azalerako 100eko 50 (gutxienez) muga bakarraren pean osatzeko dohainik, inter vivos edo mortis causa eskuratzeko Zergaren zerga-oinarriaren 100eko 50eko txikipena izango du, baldin eta ustiategi horren lan-errenta bateratua lehentasunezko ustiategiarentzat zerga-onurak emateko Nekazaritzako Ustiategiak Modernotzeari buruzko uztailaren 5eko 19/1995 Legean ezarritako muga barruan badago eta eskuraketari buruzko agiri publikoan agertzen bada ezen emaitzako finka ezin dela bost urtean zatitu, ezinbesteko balizkorik ez badago.
4. Artikulu honen 1. eta 2. Paragrafoetan aipaturik dauden zerga-oinarriko txikipenek %10eko gehikuntza izango dute, kasu bakoitzean, baldin eta eskuratzailea nekazari gaztea edo nekazaritza-alokairupekoa bada eta Nekazaritzako Ustiategiak Modernotzeari buruzko uztailaren 5eko 19/1995 Legean ezarritako beharkizunak eta ezaugarriak betetzen baditu eta eskuratzekoa lehenengo instalazioaren oste-osteko bost urteetan zehar eskuratzen badu.

Halaber, zerga-onura hau aplikatu dadin, derrigorrez bete beharko da artikulu honen 1. Paragrafoko azken ahapaldian ezarritako dagoena.

5. Basoaz arduratzeko landa-azalerak jabari osoan edo jabetza soilean dohainik, inter vivos edo mortis causa eskuratzeko Zergaren zerga-oinarriaren txikipena izango dute, honako eskala honen arabera:

- 100eko 90, organo eskudunak onetsitako Natur Interesaren karizko Babes Planetan sarturiko azaleretarako.
 - 100eko 75, Basoa Antolatzeko Planaren edo Basoa Kudeatu eta Hobetzeko Plan Teknikoaren edo basoa planifikatzeko figura baliokideen barruko azaleretarako. Plan horiek Administrazio eskudunak onesten ditu.
 - 100eko 50, basoaz arduratzeko gainerako landa-azaleretarako, baldin eta, eskualdaketaren ondorioz, lurraren baso-izaera aldatzen ez bada eta eskuratzailerak hura inter vivos kariaz transferitu edo haren ustiatagia errentan ematen edo lagatzen ez badu hura eskuratu oste-oste bost urteetan.
6. Aurreko paragrafoan ezarritako txikipen bera izango du eskualdatzailearentzat gorde den gozamina iraungitzeak.
 7. Artikulu honen 5. eta 6. Paragrafoetan araupetuta dauden zerga-oinarriaren txikipenak aplikatu ahalko zaizkio, eskala egokitan, basoaz arduratzeko azalera ustiatagiaren guztirako azalaren 100eko 80tik gorakoa den nekazaritza-ustiatagi osoari.

VI. KAPITULUA ZERGA-ZORRA

1. ATALA ZERGA-KUOTA

62. artikulua. Likidazio-erregelak.

1. Heriotzaren karizko edo dohaintzaren edo beronekin parekatu ahal denaren ziozko eskuraketengatik kausatzailearen edo dohaintza-emaitzailearen eta kausadunaren edo dohaintza-hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko da zerga.

Kausadunak ezagunak ez badira, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa aplikatuz likidazioa egingo da. Hala ere, bidezkoa den itzulketa burutu ahalko da, haiek ezagunak izandakoan.

2. Bizia gainerako aseguruaren kariaz jasotako kopuruak likidatzeko, heriotzaren karizko eskualdaketek eraentzailerak duten tarifa aplikatuko da eta jaraunspenezko osasuntza edo eskubidetza osatzen duten ondasun eta eskubideak bereiziko dira.

Bizia gainerako aseguruengatik, aseguruaren kontratugilearen edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko da zerga. Enpresek beren enplegatuentzat kontraturiko aseguruetan edo taldekakoetan, kontutan hartuko da aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasun maila.

3. Dohaintza baten bidez edo doakoa eta inter vivos den negozio juridiko baten bidez ondasun-eskubideak eskuratzen badira ondorengoan edo adopzioan hartutakoen alde, baina eskuraketa horren aurre-urreko azken bost urteetan ondasun-eskubide horiek berberak eskuratzen badira —ondorengo batek edo adopzioan hartutako batek arbasoaren edo adopzio-hartzailearen alde egindako dohaintza baten bidez edo doakoa eta inter vivos den negozio juridiko baten bidez, eskuratu ere—, orduan eskuraketa horren tributazioa lehen dohaintza-emaitzaileak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasunaren arabera egingo da, eta, hala badagokio, lehenengo dohaintza dela-eta ordaindutako kuota hori kengarria izango da.

63. artikulua. Kuota osoa.

1. Zergaren kuota osoa lortzeko, araudi honetako 57-61. artikuluetan esandako moduan kalkulaturiko likidazio-oinarriari jarraian ageri diren tarifa hauen artetik dagokion aplikatuko zaio, araudi honetako 58.1 artikuluan zehazten diren ahaidetasun mailen arabera.

Likidazio-oinarria, hauen artekoa (Euroak)	I. tarifa		II. tarifa	
	I eta II taldeak		III. Taldeak	
	Kuota osoa	Tasa	Kuota osoa	Tasa
0,00 - 9.086,00	0,00	05,70	0,00	07,60
9.086,01 - 27.261,00	517,90	07,98	690,54	10,64
27.261,01 - 45.431,00	1.968,27	10,26	2.624,36	13,68
45.431,01 - 90.850,00	3.832,51	12,54	5.110,01	16,72
90.850,01 - 181.706,00	9.528,05	15,58	12.704,07	20,52
181.706,01 - 454.259,00	23.683,42	19,38	31.347,72	25,08
454.259,01 - 908.518,00	76.504,19	23,18	99.704,01	29,64
908.518,01 - 2.271.297,00	181.801,42	28,50	234.346,38	35,72
2.271.297,01 - Hortik gorak	570.193,44	34,58	721.131,04	42,56

2. Dohaintza batean edo doakoa eta inter vivos den negozio juridiko batean, kuota osoa kalkulatzeko, 100eko 1,5eko tasa finkoa aplikatuko zaio zerga-oinarriari, baldin eta eskuratzailerak bada edo ezkontidea, edo (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikoteko bikotekidea, edo odol-ahaidetasunaren arabera lerro zuzeneko arbasoa edo ondorengoa, edo adopzio-hartzailea edo eskualdatzaileak adopzioan hartutako pertsona bat.

2. ATALA NAZIOARTEKO ZERGAPETZE BIKOITZARENGATIK KENTZEKOA KENTZEA

64. artikulua. Erregela orokorra.

Araudi honetako aurreko artikulua biok aplikatuta lortutako zer-ga-kuotatik honako kopuruotariko txikiena kentzeko eskubidea izango du zergadunak:

- a) Zerga honen menpeko ondare-gehikuntza ukitzen duen antzeko kargaren kariaz atzerrian ordaindutakoaren benetako zenbatekoa.
- b) Espainiatik kanpo kokatuta dauden ondasunei edo Espainiatik kanpo erabil daitezkeen eskubideei dagokien ondare-gehikuntzari zerga honen batezbesteko tasa aplikatuzetik ateratzen dena, baldin eta haiek atzerrian antzeko Zerga baten kargapean jarri badira.

Aurreko ahapaldian aipaturiko batezbesteko tasa lortzeko, zerga-tasa oinarri likidatorraz zatitu eta emaitza 100ez biderkatuko da. Batezbesteko tasa bi hamarrenekin adieraziko da.

VII. KAPITULUA SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

1. ATALA SORTZAPENA

65. artikulua. Sortzapena.

1. Aseguratua hilez gerozko biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzeko eragiketetan edo heriotzaren karizko eskuraketetan, haien modalitatea edo zer delarik ere, Zerga aseguratua edo kausatzailea hiltzen den egunean sortuko da, edo ausentearen heriotzaren aitopenen irmotasuna hartzen duenean, Kode Zibilaren 196. artikulua arabera.

Alkar-poderoso edo ordenatzaile-ahalaren bidezko jaraunspenetan, Zergaren sortzapena ahala modu ezeztazinean baliatzen denean edo hura iraungitzeko gainerako karietariko bat gertatzen denean gertatuko da.

Oraingo eraginkortasuneko oinordetza-ituna dagoenean, eratzaila bizirik dagoela gertatuko da Zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean.

2. Dohaintzaren edo beste doako eta inter vivos negozio juridiko batzuen ondoriozko eskuraketetan, egintza edo kontratua sorrarazten den egunean sortuko da Zerga.

Kontratugileak edo aseguruak bizirik iraunez gero biziaren gaineko aseguru baten onuradunak kopururik eskuratuz gero, onuradunak jaso beharreko lehenengo kopurua edo bakarra eskatu ahal duen egunean hartuko da sortutzat egintza edo kontratua.

3. Ondasunak edo eskubideak eskuratutzat hartuko dira, baldin eta eskuratze horren eraginkortasuna baldintza, epemuga, fideikomiso edo beste edozein muga egoteagatik etenda badago, dagoen muga desagertzen den egunean, eta une hori kontuan hartuko da ondasun eta karga-tasen balioa zehazteko.

2. ATALA PRESKRIPZIOA

66. artikulua. Preskripzioa.

1. Administrazioak likidazio egokiaren bitartez zerga-zorra zehazteko duen eskubideak eta zerga-zehapenak ezartzeko ekintzak Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 64. artikuluan eta hurrengo artikuluetan eta foru arau orokor hau garatzeko balio duten haren xedapen arau-emailetan xedatutakoaren arabera preskribatuko dute.

2. Dohaintza edo agiri pribatura sartutako beste doako eta inter vivos negozio juridiko batzuk kari dituzten eskuraketetan, preskribatzeko epea Kode Zibilaren 1227. artikulua arabera agiriaren datak gainontzekoen aurrean ondoreak dituen unean hasiko da zenbatzen.

Aurreko ahapaldian xedatutakoa kontutan hartuko da. Hala ere, uste izango da agiri pribatuen data haiek zerga honi begira likidatzeko aurkezten diren eguna dela Kode Zibilaren 1227. artikuluan ezarritako inguruabarretakoren bat aurretik gertatu ez bada; bestela, eranste-, erregistratze-, hiltze- edo emate-data kontutan hartu beharko dira, hurrenez hurren.

3. Subjektu pasiboek araudi honen 85. artikuluan aipaturik dauden aitortpenak eta agiriak aurkezteak Administrazioak ondasun eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz eskuratzeari dagokion zerga-zorra zehazteko duen eskubidearen preskribatzeko epea etengo du, baldin eta ondasun edo eskubideak kausatzailearen baziren zentzearen momentuan, edo baldin eta, araudi honen 30-33 artikuluetan xedatutakoa aplikaturik, haren jaraunspenezko ondasuntzari gehitu behar bazaizkio.
4. Jaraunspenari uko egin eta berau zapuztetik datozen eskuraketak zergapetzen dituen Zerga likidatzeko preskripzio-epea haiek gertatzen diren egunean hasiko da zenbatzen.
5. Atzerriko funtzionarioek egiletsitako eskriturei dagokienez, preskripzio epea Espainiako administrazio bati aurkezten zaizkionean hasiko da konputatzen, Espainiak sinaturiko itun, hitzarmen edo akordio batean epe hori zenbatzen hasteko beste moduren bat ezarri ezean.

VIII. KAPITULUA ARAU BEREZIAK

1. ATALA GOZAMENA, ERABILERA ETA BIZTANKETA

67. artikulua. Gozamenak.

Gozamenerako eta jabetza soilerako eskubideak baloratzeko, honako erregelok aplikatuko dira:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa gozagai diren ondasunen guztirako balioaren proportziozkoa izango da, urte bateko epealdi bakoitzeko 100eko 2koa, eta ez da 100eko 70ekoa baino handiagoa izango.

Urtebetekoak baino laburragoak diren denbora-zatiak ez dira konputatuko, baina urtebetetik beherako denborako gozamena ondasunen balioaren 100eko 2an konputatuko da.

- b) Biziarteko gozamenetan balioa ondasunen guztirako balioaren 100eko 70ekoa izango da, gozamendunak hogeitau urte baino gutxiago izanez gero, eta ehunekoa urte bakoitzeko 100eko 1eko proportzioan txikituko da. Gutxienerako muga 100eko 10ekoa da.

- c) Jabetza soilaren balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen guztirako balioaren arteko aldearen arabera konputatuko da.

Aldi berean aldi baterakoak diren biziarteko gozamenetan, jabetza soilaren baloratzeko, aurreko erregeletarik hari baliorik txikiena ematen dion erregela aplikatuko da.

- d) Gozamena pertsona juridiko batentzat eratu bada, a) letrako erregelak aplikatuko dira pertsona fisiko bati eratzitako jabetza soilaren balioa zehazteko, baina gozamenerako ezin inoiz konputatuko da ondasunei eratzitako guztirako balioaren 100eko 60koa baino handiago den baliorik. Ehuneko hori bera hartuko da kontutan, gozamenaren iraupena zehaztugabea denean.

68. artikulua. Erabilera eta biztanketa.

Erabiltzeko eta biztantzeko eskubide errealeen balioa zehazteko, eskubide horiek dagozkien ondasunen balioaren 100eko 75i aplikatuko zaizkio, kasuen arabera, aldi baterako edo biziarteko gozamenak baloratzeari dagozkion erregelak.

69. artikulua. Erregela bereziak.

1. Gozamenerako, erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak eskuratzean, eskubideon balioaren gaineko likidazioa igorriko da eta, hala denean, araudi honen 58. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera ahaidetasunaren arabera eskuratzailari dagokion txikipena aplikatuko da.
2. Jabetza soilaren eskuratzailari likidazioa igorriko zaio haren balioa kontuan hartuta, behar izanez gero jabe soilak kausatzailearekiko ahaidetasunaren zioz aplikatu ahal dituen txikipen guztien zenbatekoa kendu ondoren, araudi honetako I. tituluko V. kapituluko erregelen arabera.

Aurreko likidazioa kontutan hartuko da. Hala ere, gozamena iraungitzean, lehenengo jabe soilak kontzeptu horrengatik ordaindu behar du ondasunen guztirako balioaren ehuneko baten gaineko beharrezko likidazioa. Ehuneko horrengatik ez da Zerga ordaindu jabetza soilaren eskuratzeari.

Ehuneko hori ondasunek jabaria sendotu den unean izan duten balioaren gainean aplikatuko da, Zergari buruzko arautegian aipatuta dauden eta iraungitze-unean indarrean egon diren arauekin bat etorririk.

3. Baliteke jabe soilak bere eskubidea eskualdatzea eta berdin izatea zein den une horretan jabetza soilak duen balioaren oinarriaren gainean eta eskuraketa-tituluari dagokion kargatasaren arabera eskuratzailari egiten zaion likidazioa. Horrelakoetan, jabe soil berriaren eskuetan jabari osoa sendotzean, jabe soil berriari egingo zaio artikuluko honetako aurreko paragrafoan xedatuta dagoenarekin bat etorririk lehenengo jabe soilari egokituko zitzaion likidazioa.
4. Hala ere, baldin eta lehenengo jabe soilaren edo ondorengo jabe soilen eskuetako jabaria gozamenaren heriotza edo ezarritako epea betetzea ez den kariarengatik sendotzen bada, eskuratzailak jabaria zatibanatzeagatik egin gabe dagoenaren eta gozamina iraungitzeak kari duen negozio juridikoari dagokionaren arteko likidazioetariko handiena bakarrik ordainduko du.

Jabaria gozamenarengan sendotzen bada, beronek jabetza soilak eskuratzeko bide edo kari duen negozio juridikoari dagokion likidazioa ordainduko du.

Hura gozamenareko eta jabetza soilerako eskubideak aldi berean eskuratzen dituen gainontzeko batengan sendotzen bada, eskuraketa horri dagozkion likidazioak bakarrik igorriko dira.

5. Elkarren ondorengo gozamenetan jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, ehunekorik handieneko gozamina hartuko da kontuan eta, gozamen hori iraungitzean, jabe soilak jabetza soilak duen balio-igoerari dagokiona ordainduko du, eta, horrela, elkarren segidan, gainerako gozamenak iraungitzean.

Arau bera aplikatuko zaio bi ezkontideentzat edo izatezko bikoteko bi kideentzat (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) aldi berean eratutako gozamenari, baina jabaria sendotzeagatik likidazioa azkena hiltzen denean egingo da soilik.

6. Onartutako gozamen bati uko egitea, uko garbi eta sinplea izan arren, gozamenak jabe soilari gozamina dohaintzan ematez hartuko da zerga-ondoretarako.
7. Gozamina gozamenaren bizitza ez den baldintza suntsiarazlearekin eratzen bada, biziarako gozamenetarako ezarritako erregelak kontutan hartuko da likidazioa egiteko. Hala ere, baldintza beteta, beste likidazio bat egingo da, aldi baterako gozamenareko ezarritako erregelen arabera, eta bidezko zuzenketak egingo dira eta beharrezko zenbatekoa sartuko da edo berau itzultzeko eskatuko da.
8. Erabiltzeko eta biztantzeko eskubideen eskuratzailari haiek eskuratzen dituen unean igorriko zaio likidazioa, haien balioaren arabera. Balio horretan egingo dira, hala denean, araudi honen 58. artikuluan ezarritako eran hari bere kausatzailearekiko ahaidetasun mailaren arabera dagozkion txikipean.

Horregatik egiten den likidazioaren zerga-oinarria gozamenari begira kontutan hartuko da, baldin badago, edo, ez badago, jabe soilari begira, eskubideak eskuratzeari dagokion likidazioa egiteko.

9. Erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak iraungitzean, gozamenari Zerga eskatuko zaio, gozamenik badago, gozamenaren balioa igotzeari dagokion zatia, hala denean hari bere ahaidetasun mailari dagozkion txikipean txikitua; eta, gozamenik ez badago, jabe soilari egingo zaio eskubide horiek iraungitzeari dagokion likidazioa.

Gozamina erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak baino lehenago iraungiz gero, jabe soilak ordainduko du gozamen-eskubide hori iraungitzeagatik partzialki sendotzeagatik beharrezko likidazioa, iraungitze horri jarraiki jabetza soilaren balioak duen igoerari dagokiona.

70. artikulua. Gozamen- eta erabilera-eskubidearekin parekatu ahal diren instituzioak.

1. Baliteke, kausatzailearen xedapenen edo oinordetza araupeturik duten arau zibilak aplikatzearen ondorioz, jaraunspen bateko ondasunak osorik edo aldez aldi baterako edo bizi osorako lupertzeko eskubidea pertsona bati eratzikitzea. Horrelakoetan, uste izango da, zerga-ondoreetarako, gozamen- edo erabilera-eskubide bat dagoela, eta eskubidea baloratuko da, beraren izena edozer delarik ere, aldi baterako edo bizi osorako erabilera-eskubideetarako edo gozamenetarako ezarritako erregelen arabera.

Hala ere, eskuratzailari, ondasunak bere esku izateko eskubidea badu, jabari osoarengatik likidatuko zaio Zerga. Hala ere, hari jabetza soilari dagokion Zergaren zatia itzuli ahalko zaio, bidezkoa dena, baldin eta ondasunok testamentugileak edo aplikatu ahal den arategiak adierazitako pertsonari eskualdatu zaizkiola frogatzen bada.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legean araupetuta dauden komisari bidezko testamentuetatik eta ordeinatzeke ahaletatik datozen gozamen-eskubideak eraenduko dituzte haietarako araudi honen 73. eta 74. artikuluetan berariaz ezarritako arauak.

Gainera, artikulua honetako aurreko paragrafoan ez zaie aplikatuko araudi honek araubide berezia ezarri dien instituzioei.

2. ATALA ORDEZPENAK

71. artikulua. Ordezpenak.

1. Ordezpen arruntean, ordezkoak kausatzailearena jarauntsiko du eta, horren ondorioz, Zerga eskatuko zaio, baldin eta eraturako jaraunsele lehenago hiltzen bada edo kausatzailearekiko ahaidetasunaren dela eta jaraunspena onartu ezin badu.

Eratutako jaraunseleak jaraunspena onartu nahi ez badu, kontuan hartuko da jaraunspenari uko egitea gertatuz gero araudi honetako 80. artikuluan xedatuta dagoena.

2. Ordezpen pupilarrean eta ereduazkoan, ordezkoak ordeztuarena jarauntsiko du eta Zergaren likidazioa igorriko zaio, bera egiten denean, ondorengo ordeztuarekiko ahaidetasun mailaren arabera. Hala ere, kontuan hartuko da ondorengo horrek testamentugileak hildakoan ordaindutakoa.
3. Fideikomisoetako ordezpenetan, Zerga eraketan eta ordezpen bakoitzean eskatuko da eratuaren edo ordezkoaren lehengo ondarea eta kausatzailearekiko ahaidetasun gradua kontuan hartuz; fiduziarioa eta fideikomisodunak, azkena izan ezik, gozamendun huts gisa hartuko dira, ondasunak inter vivos edo mortis causa egintzengatik baliarazi ahal dituztenean izan ezik, horrelakoetan jabari osoarengatik egingo baita likidazioa, araudi honetako 65.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Azken kasu horretan, jaraunselearen kausadunek kausatzaileak ordaindutako Zerga itzultzea eskatuko ahalko dute, jabetza soilari dagokion zatia, baldin eta frogatzen badute ordezpenak ukitutako ondasunak testamentugileak izendatutako ordezkoari eskualdatu zaizkiola.

3. ATALA FIDEIKOMISOAK

72. artikulua. Fideikomisoak.

1. Fideikomisoetan, likidazioa egin behar den epeetan fideikomisoetako jaraunsele ezaguna ez bada, fiduziarioak ordainduko du araudi honen 63. artikuluan ezarritakoaren arabera arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa oinarri likidakorrari aplikatuz ateratzen dena, kausatzailearekiko beraren ahaidetasuna edozer delarik ere.

Aurreko ahapaldian ezarritako erregela ez da aplikatuko, baldin eta fideikomisoduna pertsona talde zehatz batetik izendatu behar bada. Kasu horretan, kausatzailearekiko ahaidetasun urruneneko pertsonari dagokion taldearen tarifa aplikatuko zaio oinarri likidakorrari.

2. Aurreko zenbakiarekin bat etorririk ordaindutakoak fideikomisodunari mesede egingo dio, fideikomisoduna ezaguna bada; baina beronek ez du kopururik itzultzea eskatzeko eskubiderik izango, baldin eta bere kausatzailearekiko ahaidetasunaren arabera, beste tarifarik aplikatu ahal bazaio.

Berari dagokion tarifa fiduziarioari aplikaturikoa baino merkeagoa bada, gehien ordaindu duenak edo beraren kausadunek eskubidea izango dute ordaindutako gaindikina itzultzeko, araudi honen 93. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Likidazioa egiteko epeetan fideikomisoduna ezagutzen bada, beronek Zerga ordainduko du kausatzailearekiko beraren ahaidetasun mailari dagokion tarifaren arabera.
4. Fiduziarioak edo testamentugileak jaraunspena eskualdatzeko agindutako pertsonak, ondasunak osorik edo alde, aldi baterako edo bizitza osoan lupertu ahal badiu edo fideikomisozko jaraunslari eman arte berauen errentak edo produktuak bere eskuetan izateko ahalmena badu, gozamen dun gisa ordainduko du Zerga kausatzailearekiko bere ahaidetasunaren arabera.

Kasu horretan, fideikomisodunak ordainduko du, halaber, dagokion Zerga ondasunak edukitzen dituenean, eta ez da beraren alde konputatuko fiduziarioak ordaindutakoa.

5. Jaraunslari fiduziarioari jaraunspenezko ondasunak jabetzan uzten diren fideikomisoetan, kargaren bat kendu behar bada ere, jaraunslari horren kontura likidatuko da Zerga, jabetza eskuratzeagatik. Horrelakoetan, karga kenduko da, kendu ahal bada. Horregatik Zerga ordainduko du kargaren ondoriozko onura eskuratzen duenak, ezaguna bada, egintzari juridikoki dagokion tituluarengatik edo kontzeptuarengatik; eta, onuraduna ezaguna ez bada, jaraunslariak ordainduko du kontzeptu horri dagokion Zerga, eta kargaren zioz ordaindutako Zerga jasango du onuradunak, ezaguna bada.

4. ATALA

EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN MENPEKO JARAUNSPENAK

73. artikulua. Gozamena «alkar-poderoso» edo ordeinatzeko ahalpeko jaraunspenetan.

1. Baldin eta “alkar-poderoso”an edo ordenatzaile-ahalean pertsona jakin bati eman bazaio hura erabiltzen ez den bitartean jaraunspeneko ondasunaz gozatzeko eskubidea, gozamenaren bi likidazio egingo dira gozamen dunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:
 - a) bata behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko arauen pean, araudi honen 67.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorririk.
 - b) eta bestea behin-betikoa, “alkar-poderoso” edo ordenatzaileahala erabiltzen denean, araudi honen 67.a) artikuluan araupetuta dauden aldi baterako gozamenaren arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-betiko likidazioagatik ordainduko dena konturako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamen dunari itzuliko zaio beraren aldekoa bada.
2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatiko b) letran aipatutako behin betiko likidazioa, aldi baterako gozamenaren arauen pean kalkulatu, eta “alkar-poderoso” edo ordenatzaile-ahala baliatzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunslari direnen likidazioa aldi berean egingo dira, eta kontuan hartuko da kausatzailea hiltzean ondasunek zuten balioa.

3. Baldin eta ordenatzaile-ahala baliatzeko epea ezarrita badago, behin-behineko likidazioa ahala erabiltzeko gehieneko epealdirako egingo da, araudi honen 67.a) artikuluan aldi baterako gozamenaren likidaziorako ezarritako arauari jarraituz.
4. Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri aurretik ezkontide alargunari emandako ordenatzaile-ahalei dagokienez behin betiko likidazioa besterik ez da egingo, eta bera egiteko, araudi honen 67.b) artikuluan biziarteko gozamenei buruz ezarritako arauak beteko dira.

74. artikulua. Ordenatzaile-ahala baliatzen denean likidazioa egiteko arau bereziak.

1. Baldin eta komisarioak edo kausatzailearen ezkontide edo izatezko bikoteko kide (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) alargunak testamentuahalordea baliatzen badu ezkontza ondoko ondasun-erkidegoaren ondasun jakin bat, kausatzailea hil eta foru komunikazioko foru-araubide ekonomikoa sendotzearen ondorioz, komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo bati adjudikatzeko, jaraunspena banatu eta likidatu gabe, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren erdia dohaintza gisa likidatuko da eta beste erdia, kausatzailearena, oinordetza gisa.
2. Ordenatzaile-ahalari lotutako oinordetzetan, kausatzailea bizkaitar forugabe legez hiltzen bada, bi likidazio egin behar dira:
 - a) bata kausatzailea hil eta berehala egingo da, ahalak ukitzen ez duen jaraunspenaren zenbatekoaz eta, beti ere, seniparte hertsiaeren herenez, zerga honen arau orokorren pean;
 - b) eta bestea ahalak ukituriko jaraunspenaren zenbatekoaz egingo da, behin ahala modu ezeztazinean erabiliz gero edo hura iraungitzeko kariatako bat gertatuz gero. Hori guztia, ordenatzaile- ahalak ukituriko jaraunspeneko ondasunen gaineko gozamen eskubideari dagozkion likidazioak egitearen kalterik gabe, araudi honen 73. artikuluan ezarritako arauekin bat etorritik.
3. Guztiz edo zati batean "alkar-poderoso"ari edo ordenatzaileahalari loturiko jaraunspen guztietan, ondorengo bati dagozkion eskuraketa guztiak pilatu egingo dira, Zergaren likidazioaren ondoretarako, eta araudi honen 57-61 bitarteko artikuluetan ezarritako zerga-oinarriaren txikipenen aplikazioari begira.

Horrela, ordenatzaile-ahala zati batean edo bete-betean erabiltzearen ondorioz, edo hura iraungitzeko gainerako zioengatik, kausatzaile batengandik ondorengo bati datozkion jaraunspenezko eskuraketa guztiak, Zergaren likidazioan, eskuraketa bakartzat joko dira. Beraz, zerga-kuota kalkulatzeko, zerga-oinarri guztiak batu egingo dira, eta araudi honen 57-61 bitarteko artikuluetan araututako zerga-oinarriaren txikipenetatik bidezkoak direnak behin bakarrik aplikatuko dira.

Metatutako likidazioak direla-eta aurretik ordaindutako kuotak, gainera, kendu ahal izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik.

75. artikulua. Jaraunspenezko eskuraketen metaketa.

1. Kausadun batek kausatzaile jakin batengandiko jaraunspen baten ondorioz lortzen dituen ondare-gehikuntza guztiak jaraunspenezko eskuraketa bakartzat joko dira, nahiz eta araudi honen 10. artikuluan aipatutako oinordetza-tituluetariko baten baino gehiagoren bidez lortuak izan.
2. Hori dela eta, ondasun eta eskubideen eskuraketa guztiak metatu egingo dira, bai oraingo eraginkortasuneko oinordetza- itunen ondorio direnak eta bai ordenatzaile-ahalaren erabilera partzial edo guztizkoen edo hura iraungitzeko bestelako zioen ondoriozkoak ere, berdin dio testamentugileak berak testamentuan xedatutakoak izan zein hura falta delako Legeak xedatutakoak izan.

3. Artikulu honetako aurreko bi idatz-zatietan aipatu diren ondare- gehikuntza guztiak jaraunspenezko eskuraketa bakartzat hartuko dira Zergaren likidazioan; beraz, zerga-kuota kalkulatzeko, zerga- oinarri guztiak batuko dira eta behin bakarrik aplikatuko dira zerga-oinarriaren txikipenak, alegia, araudi honen 57-61 bitarteko artikuluetan araupetutako txikipenetatik bidezkoak direnak.

Metatutako likidazioak direla-eta aurretik ordaindutako kuotak, gainera, kendu ahal izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik

76. artikulua. Lehengoratzetan likidazioa egiteko arauak.

1. Oraingo eraginkortasuneko oinordetza-itunaren bidez edo elikadura-zamadun ondasunen dohaintzaren bidez eskualdatu diren ondasunak lehengoratu eta eratzaileri edo dohaintza-egileari itzultzen zaizkionean, beste likidazio bat egingo da, araudi honen 67.a) artikuluan aldi baterako gozamenei buruz ezarritako arauak betez, eta lehengoratu diren ondasunak eskualdatu zirenean egin zen likidazioaren aldean gairik badago, hura ere itzuli egingo zaio ordaindu duen subjektu pasiboari.
2. Ez da bidezkoa izango kausatzailearen jaraunspenean metatzea, araudi honen 75. artikuluan adierazitako moduan, lehengoratutako ondasunak, behin artikulu honetako aurreko idatz-zatian xedatutakoa beraiei aplikatu eta gero.

77. artikulua. Komisarioaren betebeharrak "alkar-poderoso"edo ordenatzaile-ahalari lotutako jaraunspenetan.

1. "Alkar-poderoso" edo ordenatzaile-ahalari lotutako jaraunspenetan, komisarioak kausatzailearen jaraunspeneko ondasun guztien inbentarioa aurkeztu behar du, bai eta ordenatzaile-ahalaren frogagiria ere. Gainera, Zerga Administrazioak, egoki iritziz gero, beste edozein agiri aurkezteko eskatu ahal dio.
2. Kausatzailea hiltzen den egunetik hasita, edo haren heriotzaren adierazpena irimo bihurtzen den egunetik, Kode Zibilaren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, komisarioak urtebeteko epea izango du artikulu honetako aurreko idatz-zatian aipatu diren agiriak Zerga Administrazioari aurkezteko.
3. Ordenatzaile-ahala edo "alkar-poderoso" baliatzearen zain dauden ondasun-eskuraketetan, ahala baliatzen den egunean edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatzen den egunean hasiko da zenbatzen araudi honen 88. artikuluan ezarritako epea.
4. Beste alde batetik, komisarioak, hilabeteko epean, ordenatzaile- ahala, zati batez nahiz osorik, modu ezeztazinean erabiltzen den egunetik edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatzen den egunetik zenbatuta, inguruabar horien berri emango dio Zerga Administrazioari eta ordenatzaile-ahala nola erabili den edo nola iraungi den frogatzen duten agiriak aurkeztuko dizkio.

Jakinarazpen horretan beti agertu behar da, beren beregi, ordenatzaile- ahalaren erabilerak edo iraungipenak eragiten dien ondasun eta eskubideen identifikazio zehatza. Ondasun eta eskubideok adjudikatu zaizkien kausadunen nortasun-datuak ere jarri behar dira, eta jaraunspenezko eskuraketa horiengatik ordaindu beharreko Zergaren sortzapen-eguna ere bai.

5. Komisarioak testamentu-ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenetako ondare elementuen inbentarioan gertatzen diren aldakuntzen berri eman behar diote Zerga Administrazioari, baldin eta ondare aldakuntzok ez badute eragiten Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu beharra. Komunikazio hori ondare aldakuntza gertatzen denetik hilabete igaro aurretik aurkeztu behar da; berarekin batera aldakuntzaren frogagiria kopiak aurkeztu behar dira.

5. ATALA

JARAUNSPENAREN BANAKETA ETA ADJUDIKAZIO-GAINDIKINAK

78. artikulua. Jaraunspena banatzeko proportziozkotasun abiaburua eta adjudikazio-gaindikinak.

1. Heriotzaren ziozko eskuraketetan, direnak direla interesatuek egindako banaketak eta adjudikazioak, Zergaren ondoreetarako proportzionaltasunari hertsiki lotuz eta oinordetzari buruzko arauak betez egin direla uste izango da; berdin dio ondasunak lurraldearen baldintzarengatik edo beste edozein karirengatik Zergaren pean egon edo ez. Horren ondorioz, balioak egiaztatzean gertatzen diren igoerak eskuratzailleen edo jaraunslleen artean launduko dira.
2. Baliteke ondasunak egiaztatzean balioak igotzea edo ondasunei loturarik eza aplikatu behar izatea. Horrelakoetan, ondasunok testamentugileak pertsona zehatz bati espezifikoki eratziki edo jaraunspenarena ez den kontzeptuan adjudikatuz gero, igoerek edo urripenek ondasunok eskuratzen dituenak bakarrik ukituko dute.
3. Adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarrita dauden arauen arabera, baldin eta jaraunslleei eta legatuhartzaileei egindako adjudikazioetan ezberdintasunik badago, aitortutako balioaren arabera, jaraunspen-tituluari begira.
4. Era berean, artikuluko honetako aurreko paragrafoan aipatuta dauden arauen arabera, adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira, jaraunslle edo legatu-hartzaileetarako bati adjudikatutakoaren balio egiaztatuak haren tituluari jarraiki dagokion balioa 100eko 50ean baino gehiagotan gaintitzen duenean, inbentarioa egin zaion ondasun bakoitzarentzat aitortutako balioak Ondarearen gaineko Zergaren erregelak aplikatuz ateratzen direnen berdinak edo handiagoak ez badira.

Ondoreotarako, jaraunslle edo legatu-hartzaile bakoitzari dagokion balioa aitortutako bakoitzari dagokion balio-igoerak jaraunslle eta legatu-hartzaileen artean laintzetik ateratzen dena.

5. Ez dute adjudikazio-gaindikinik ekarriko, artikuluko honetako 3. eta 4. idatz-zatietan ezarritakoaren ondoreetarako, zati alikuotan, ohiko etxebizitzan edo oinetxeko ondasunetan edo baserrian eta beronen jabegoan eta lur erantsietan ezkontide edo izatezko bikoteko kide (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) alargunarentzat edo jaraunslleentzat edo legatu-hartzaileentzat egindakoek, baldin eta haien balioa, jaraunspen osoarekiko, adjudikatarioaren jaraunspen kuota baino handiagoa bada.

79. artikulua. Alargunaren senipartea ordaintzea eta ondasunak jabari osoan ematea.

Kode Zibileko 839. eta 840. artikuluetan edo Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeko 58. artikuluan xedatutakoari jarraiki bizirik dirauen ezkontideari edo izatezko bikoteko kideari (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) bere legebidezko hartzekoa gozamina ez den eran edo kontzeptuan ordaintzen bazaio, likidazioa egingo da adjudikatutako ondasunen balio egiaztatuen eta gozamenari esleitutakoaren baterako kopuruaren gainean, araudi honetako 67. artikuluko erregelaren arabera. Horren ondorioz, ez zaie jaraunslleei likidaziorik egingo jabetza soilarengatik, ezta, bere egunean, gozamina iraungitzeagatik ere.

Hala ere, gozamina ez den eran adjudikatutakoaren balioa ezkontide edo izatezko bikoteko kide (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) alargunari dagokiona baino txikiagoa edo handiagoa bada, gaindikina edo diferentzia adjudikazio-gaindikin gisa likidatuko da, jaraunslle onuradunaren edo onuradunen kontura, lehenengo kasuan, edo, bigarrenetan, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren kontura.

6. ATALA ZAPUZTEA ETA UKO EGITEA

80. artikulua. Zapuztea eta uko egitea.

1. Jaraunspena edo legatua era garbi eta sinplean eta dohainik zapuztu edo berari uko eginez gero, haren onuradunek zerga ordainduko dute zapuztutako edo uko egindako zatia eskuratzegatik, uko-egileari edo zapuzten duenari aplikatzea legokiokeen tarifaren arabera, kausatzailearen onuradunarekiko ahaidetasunarengatik beste tarifa garestiago bat aplikatzea bidezkoa ez bada.

Jaraunspenari edo legatuari era garbi eta sinplean eta dohainik uko egitearen onuradunak kausatzailearen beste ondasunik zuzenean jasotzen badu, aurreko ahapaldian xedaturikoa bakarrik aplikatuko da, baldin eta ondasun talde biak banan-banan eskuratzegatik egindako likidazioen guztirakoa zenbatekoa guztien balioaren gaineko likidazioarena baino handiagoa bada, eta oinarri likidakorrari aplikatuko zaio onuradunaren kausatzailearekiko ahaidetasun mailaren taldeari dagokion tarifa.

2. Pertsona zehatz baten aldeko gainerako uko-kasuetan, uko-egileari eskatuko zaio Zerga. Gainera, likidazioa egin ahalko da uko egin zaion zatia laga edo dohaintzan emateagatik.
3. Pertsona zehatz baten alde zapuztea edo uko egitea zerga-ondoreetarako dohaintzatzat joko da, baldin eta Administrazioak jaraunspenaren edo legatuaren gainera erortzen den Zergari dagokion zerga-zorra zehazteko duen eskubideak preskribatu ostekoa bada.
4. Bizirik dirauen ezkontidearen ukoaren ondorioz ondasunen foru-komunikazioaren araubidearen emaitzako ezkontzasozietateari edo irabazpidezko sozietateari dagokionez uko egindako ondasunak, Zergaren likidazioan, hildakoak utzitako ondasuntzan sar daitezzen, ukoa hutsa, soila eta doakoa izan behar da eta eskritura publikoan egin behar da kausatzailea hil aurretik. Baldintza horiek betetzen ez badira, likidazioa egingo da uko egin duenak haren onuraduni dohaintza egiteagatik.

Idatz-zati honetan ezarritakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

7. ATALA DOHAINZA-KASU BEREZIAK

81. artikulua. Kostubidezko eta ordainketazko dohaintzak.

1. Kostubidezko eta ordainketazko dohaintzek zerga ordainduko dute kontzeptu horrengatik eta beren zenbateko osoa kontutan harturik. Elkarrentzako prestaziorik badago edo dohaintza-hartzaileari kargarik ezartzen bazaio, diferentzia kontutan harturik ordainduko dute zerga, soilik, kontzeptu berarengatik. Hala ere, zerga ordaindu ahal dute bateratzen diren prestazioengatik edo kargak ezartzeagatik.
2. Biziarreko edo aldi baterako pentsioen trukean ondasunik lagatuz gero, dohaintza bezala ordainduko da zerga ondasunen balioa pentsioarena baino handiagoa den zatiarengatik. Baliok Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga araupetzen duten arauekin bat etorririk kalkulatu behar dira.

8. ATALA DOHAINZAK PILATZEA

82. artikulua. Dohaintzak eta elkarrekin pareka daitezkeen gainerako doako eskualdaketak pilatzea.

1. Dohaintzaile berberak dohaintza-hartzaile berberari hiru urteko epearen barruan —dohaintza bakoitzaren egunetik zenbaturik— egindako dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaintzen inter vivos eskualdaketak —araudi honetako 80.4

artikuluan ezartzen dena aplikatzearen ondoriozkoak barne—, eskualdaketa bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko, baldin eta ez badira salbuetsizat jo; horrenbestez, zerga-oinarri guztiak batuz lortuko da zerga-kuota. Dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdaketak direla-eta ordaintzen diren kuotak kengarriak izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidazioan.

2. Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, haiek pilatzeko, oraingo dohaintza edo eskualdaketa dataren aurreko hiru urteetan dohaintzan emandako ondasun edo eskubideen balioa batu behar da.
3. Aurreko dohaintzetan edo eskualdaketatik ezkontide biek ezkontza-sozietatearen ondasunak dohaintzan eman edo eskualdatu badituzte eta berriari haiek bategi bakarrik bere ondasunen bat dohaintzan eman edo eskualdatzen badu, pilaketak bigarren dohaintza egin duen ezkontideari egotzi ahal zaion aurreko dohaintzaren edo eskualdaketa balioaren proportziozko zatia bakarrik ukituko du.

Idatz-zati honetan ezarritakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

4. Pilatutako dohaintzak edo doako eskualdeketa beraiantzat egiaztatutako balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta balio hori haiek pilatzen diren unean aldatzen den.

83. artikulua. Dohaintzak eta dohaintza-emaileen jaraunspenarekin parekatu ahal diren gainerako doako eskualdeketa pilatzea.

1. Araudi honetako aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdeketa —araudi honetako 80.4 artikuluan ezartzen dena aplikatzearen ondoriozkoak barne—, batu ahal izango zaizkio dohaintzaileak dohaintzahartzailearen alde egindako oinordetzaren zerga-oinarriari, baldin eta salbuetsizat jo diren dohaintzak ez badira, eta baldin eta oinordetza eta dohaintzaren arteko epea ez bada bost urte baino luzeagoa; horrezaz gainera, dohaintza horiek guztiak eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga-kuota zehazteko orduan. Oinordetzaren zioz egiten den likidazioan, hala badagokio, kengarria izango da dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdeketa direla-eta ordaindutako zenbatekoa. Hortaz, dohaintza eta eskualdaketa horien zioz ordaindutako guztia edo zati bat itzuliko da, baldin eta ordaindutakoaren batura handiagoa bada, oinordetzaren zioz egiten den likidazioa baino.
2. Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, haiek pilatzeko batu behar da oinordetzari dagokion Zerga sortzen den egunaren aurreko bost urteetan dohaintzan emandako ondasun edo eskubideen balioa.
3. Dohaintzetan edo doako eskualdaketatik ezkontide biek ezkontza-sozietatearen ondasunak dohaintzan eman edo eskualdatu badituzte, pilaketak kausatzaileari egotzi ahal zaion ondasun multzoaren balioaren proportziozko zatia bakarrik ukituko du eta dohaintza edo parekatu ahal den doako eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia kenduko da.

Idatz-zati honetan ezarritakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

4. Pilatutako dohaintzak edo doako eskualdeketa beraiantzat egiaztatutako balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta balio hori haiek pilatzen diren unean aldatzen den.

9. ATALA

BIZI-ASEGURUEN KARIAZ JASOTAKO KOPURUAK PILATZEA

84. artikulua. Bizi-aseguruen kariaz jasotako kopuruak pilatzea.

1. Araudi honen 27. artikulua 3. Paragrafoan aipatuta dagoen zerga-oinarria zehazteko, onuradunak hildakoaren gainean eraturako bizi-aseguru guztien kariaz jasotako kopuruak pilatu ahalko dira.
2. Jasotako kopuru horiek likidatu badira eta, gero, artikulua honetako aurreko paragrafoko pilaketa egin behar bada, beste likidazio bat egingo da pilaketari dagokion zerga-oinarria kontutan hartuz, eta emaitzako kuotatik kendu ahalko dira haiek pilatu aurretik ordaindutako zerga-kuotak.

II. TITULUA

ZERGA KUDEATZEA

LEHEN KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

85. artikulua. Agiriak eta aitorten aurkeztea.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren subjektu pasiboek araudi honetan aipatuta dauden zerga-egitateei buruzko zerga-aitorpen ulergarria aurkeztu beharko dute, zertarako-eta Zerga Administrazioaren organo eskudunek bera aztertzeke, kalifikatzeko, egiaztatzeke eta bidezkoak diren likidazioak egiteko, araudi honetako hurrengo artikuluetan aipatuta dauden modu eta epeetan.

Aitorpen horrekin batera aurkeztu beharko dituzte, hala denean, loturiko kontratuak edo egintzak sartu diren agiriak.

2. Subjektu pasiboek aitorten-likidazio bat aurkeztea aukeratu ahalko dute, araudi honen 105. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eran. Kasu horretan zerga-zorraren zenbatekoa zehazteko beharrezko eragiketak egin beharko dituzte eta zerga-egitatea dagoen edo ageri den agiria edo aitortena aurkeztu.

Aurreko ahapaldian ezarritakoa kontutan hartuko da. Hala ere, subjektu pasiboek zerga honengatik aitorten-likidazioa aurkeztu beharko dute, baldin eta Zergaren menpean eta araudi honen 9. artikulua 1. Paragrafoko b) eta c) letretan aipatuta dauden doako ondare-gehikuntzak lortzen badituzte.

3. "Alkar-poderoso"ari edo ordenatzaile-ahalarari lotutako jaraunspenetan, jaraunspenaren komisarioak zerga-aitortena aurkeztu behar du. Bertan kausatzailea hil dela agerrarazi behar du, eta araudi honen 77. artikuluko 1. idatz-zatien ezarritakoa bete behar du.

Idatz-zati honetan aipatu diren jaraunspenetan, ezin izango dute subjektu pasiboek aitorten-likidaziorik aurkeztu, ezeztatzina den eran ordenatzaile-ahala partzialki edo osorik erabiltzen ez den bitartean edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatzen ez den bitartean

86. artikulua. Agiriaren aurkezlearen izaera.

1. Agiria edo zerga-aitortena Administrazioak likida dezan edo egindako autolikidazioarekin batera agertzeko aurkezten duena, hori aurkezteagatik, Zerga ordaindu behar dutenen mandataria izango da eta, hortaz, aurkeztu duen aitortenari buruz egiten zaizkion jakinarazpenek, bai balioak egiaztatzearen bai egiten diren likidazioen gainekoek, eta izenpetzen dituen dilijentziek, interesatuek onetsiko zituztenen balioa izango dute eta ondore berdinak sortuko dituzte.

2. Aurkezleak, agirian edo aitorpenean interesatu guztien agindua jasotzen badu, berariaz agerrarazi beharko dute hori, bere mandatugileen izenak aipatuz.

Kasuotan, aurkezleari egiten zaizkion jakinarazpenen ondoreak edo hark izenpetzen dituen dilijentzienak hark ordezkutzen omen dituen personak bakarrik ukituko ditu.

3. Aurreko paragrafoan aipatuta dauden kasuetan, aurkezlearen mandatugileek ordaindu behar dituzten eskubideak bakarrik likidatuko dira. Ondoreotarako, aurkeztutako agiriaren hitzez hitzeko kopia sinplea aurkeztu beharko da, alderatu ostean dagokion Bulego Likidatzailean gordeko dena.

Agiria aurkezteko epeak pasatuta, Bulego Likidatzaileak gainerako interesatuei agindeia egingo die agiria edo aitordena hurren-hurrengo hamar egunetan aurkez dezaten. Agiria aurkezturik edo, bestela, ofizioz, Bulego Likidatzaileak bidezkoak diren likidazioak egingo ditu gainerako interesatuen kontura, aplikatu dakizkieteen zehapenak jarritz. Hala ere, Administrazioak ofizioz egin ahalko die likidazioa gainerako subjektu pasiboetara.

Era berean, agiria aurkezten den aldi berean, helbide bat izendatu beharko da bidezkoak diren jakinarazpenak egiteko.

4. Artikulu honetako aurreko paragrafoetan agiriaren aurkezleari eratzkitako mandatuari aurkezle horrek uko egin ahalko dio edo mandatu hori interesatuek ezeztatu ahalko dute, Bulego Likidatzaile eskuduneari aurkeztutako idazkiaren bitartez. Horren ondorioz, idazkia aurkezten denetik, ondorengo jarduketak subjektu pasiboekin zuzenean harremanetan jarri beharko dira.

II. KAPITULUA AGIRIAK AURKEZTEKO ARAUBIDEA

1. ATALA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

87. artikulua. Agiriaren edukia eta agiri osagarriak.

1. Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari agiriak eta kopia sinplea aurkeztuko dute behar diren epeetan eta bulego eskudunetan, bidezkoak diren likidazioak egiteko, araudi honetako arauen arabera.
2. Agiria zerga-aitorpenentzat hartuko da eta beraren barruan sartu beharko da eskualdatzailearen edo eskuratzzailearen identifikazio-datuez eta bidezko jakinarazpenak egiteko helbide batez gain, zergapetutako ondare-gehikuntza osatzen duten ondasun eta eskubideen zerrenda zehaztua. Bertan adierazi beharko dira ondasun eta eskubide bakoitzari eratziki dioten benetako balioa, kargak, zorrak eta gastuak, baldin eta berauek kentzea eskatzen bada.

Agiriak aipaturiko datu guztiak ez baditu, agiriarekin batera aurkeztu beharko da aipatu gabeak ageri diren zerrenda bat.

3. Agiririk ez badago, aitorden bat aurkeztuko da paper arruntean. Bertan agerraraziko dira aurreko zenbakian adierazitako datu guztiak.
4. Heriotzaren karizko eskuraketan kasuan, agiria eta aitordena aurkeztuko da. Bertan sartu beharko dira, ondasunei begira, senar-emazteen irabazpidezkoak, eta irabazitako ondasunak, senar-emazteen ekonomi araubidea, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legean araupeturik dagoen foru komunikazioarena bada, edo ezkontide bion ondasun guztiak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 96. artikuluan aipatuta dagoen foru komunikazioa benetan sendotu bada. Horrelako eskuraketetan, agiri edo aitorden horrekin batera honakook aurkeztu beharko dira:

- a) Kausatzailea hil delako ziurtagiria, Erregistro Zibilak luzatua; Azken Borondateko Egintzen Erregistroaren Ziurtagiria; eta kausatzailearen eta beronen jaraunsteen edo/eta legatu-hartzaileen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Testamentu-xedapenen kopia baimendua, horrelako xedapenik badago, eta, horren ezean, jaraunsteek adieraziaren testigantza. Oinordetza intestatuaren kasuan, jaraunsteek epaileari edo notarioari egindako adierazpena eginda ez badago, jaraunsteek ustezkoen zerrenda aurkeztuko dute eta beren kausatzailearekiko ahaidetasuna adieraziko dute, eta Famili Liburuaren fotokopia ekarri beharko dute.
- c) Kausatzaileak oinordetzan sartutako ondasun higiezinak eskuratzeko hartutako titulua frogatzen duten agiriak. Ondasun eta eskubideen eskritura publikoen fotokopia ekarri behar da, agiri publikorik aurkeztu ezean, eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria
- d) Eskualdagai diren ondasunen eta eskubideen artean kontuetako saldo edo titulu kotizaturik ageri bada, Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Finantza Erakundeen, aurrezki-libreten, kontu korronteen eta eperako ezarpenen ziurtagiriak aurkeztu behar dira, baita Burtsan kotizatzen duten errenta finko edo aldakorreko titulu-gordailuenak ere.
- e) Eskualdagai diren ondasunen eta eskubideen artean Burtsan kotizatzen ez duen akziorik ageri bada, kausatzailea hil baino lehen onetsitako azken Balantzearen fotokopia aurkeztu beharko da, Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako, eta sozietate-kapitala zatituta dagoen akzio edo partaidetzen kopuruaren ziurtagiria.
- f) Eskualdagai diren gainerako ondasun eta eskubideak frogatzen dituzten agiriak.
- g) Kendu nahi diren azken gaixotasunaren, lurperaketaren eta hileta-elizkizunen gastuak, zorrak eta kargak frogatzen dituzten agiriak.
- h) Titulu kopuruaren eta zenbatekoen eta eskuraketa-dataren egiaztagiriak, eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Toki Erakundeen Herri Zorraren jaulkipenen baldintzak.
- i) Kausatzailearen Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitzaren ziurtagiria. Bertan kreditatu behar da egoitza bertan hil aurretiko bost urteetan izatea.
- j) Subjektu pasiboa kausatzailearekin berau hil aurretiko urte bietan bizi izan delako ziurtagiria.

Zerga likidatzeko agiriak notarioaren eskritura publikoan edo agiri pribatuan aurkeztu ahalko dira, eta aipatutako agirien originalak eta kopiak ekarri beharko dira.

Idatz-zati honetan ezarritakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

5. Hura likidatzeko biziaren gaineko aseguruaren polizarik aurkezten bada heriotza-kasurako, Zergaren subjektu pasiboek honako agiriok aurkeztu beharko dituzte:
 - a) Heriotza-ziurtagiria, Erregistro Zibilak luzatua.
 - b) Aseguru Bazkunaren ziurtagiria. Bertan zehaztu behar da zenbatekoa den jaso beharreko zenbatekoa eta zein diren onuradunak.
 - c) Onuradunen eta kausatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
 - d) Kausatzailearen Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitzaren ziurtagiria. Bertan kreditatu behar da egoitza bertan hil aurretiko bost urteetan izatea.

Aseguruaren polizan berariaz eta zehazki aipatuta ez badaude onuradunak hura legezko jaraunslerei bidaltzeagatik, kausatzailearen testamentu-xedapenen kopia baimendua aurkeztu behar da, Azken Borondateko Egintzen Erregistroaren Ziurtagiriarekin batera. Testamenturik ez badago, jaraunslen adierazpenaren epaile-autoaren edo notario-aktaren lekukotza jarri ahal da haren ordeiz.

6. Dohaintzetan eta gainerako doako inter vivos eskuraketetan, subjektu pasiboek honakook aurkeztu beharko dituzte:
 - a) Dohaintzan ematekoak diren ondasun edo eskubideen deskribapen zehaztua.
 - b) Dohaintza-emailearen eta dohaintza-hartzaileen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
 - c) Ondasun higiezinik eskualdatzen bada, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiriaren fotokopia.
 - d) Eskualdagai diren ondasunen eta eskubideen artean Burtsan kotizatzen ez duen akziorik ageri bada, dohaintzaren dataren aurretik onetsitako azken Balantzearen fotokopia aurkeztu beharko da, Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako, eta sozietate-kapitala zatituta dagoen akzio edo partaidetzen kopuruaren ziurtagiria.
 - e) Salbuetsitako edo hobaritutako tituluak eskuratzen diren data kreditatzen duen ziurtagiria, eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Toki Erakundearen Herri Zorraren jaulkipenen baldintzak, zenbatekoa eta kopurua.
 - f) Eskudirutan dirurik dohainik eskualdatuz gero, diru kopuru hori transferitu delako banku-egiaztagiriaren kopia aurkeztu beharko da, halaber, edo, horren ezean, eskualdaketa egiten den banku-taloia kopia.
 - g) Dohaintza-hartzailearen Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitzaren ziurtagiria. Bertan kreditatu behar da bertan egoitza Zerga sortu aurretiko bost urteetan izatea. Hori egin behar da, ondasun higiezinak ez diren ondasunen edo eskubideen eskualdaketen kasuan.
 - h) Subjektu pasiboa dohaintza-emailearekin dohaintza burutu aurretiko urte bietan bizi izan delako ziurtagiria.
7. Alkar-poderoso edo ordeinatzeko ahalpeko jaraunspenetan, jaraunspenaren komisarioak araudi honen 85. artikuluan 3. Paragrafoan aipatuta dagoen aitorpena aurkeztu beharko du, araudi honen 88. artikuluan 1. Paragrafoa a) letran aipatuta dagoen epean, baita jaraunspeneko ondasunen inbentarioa ere. Gainera, artikulua honetako aurreko 4. Paragrafoan aipaturik dauden agiriak aurkeztu beharko dira, ahal bada, aipaturiko Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibileko instituzioaren izaera kontutan harturik.
8. Zerga honengatik hobaria, txikipena edo salbuespena izan gura den balizko guztietan, gainera, aurkeztu beharko dira hori lupertzeko araudi honetan ezarriak dauden beharkizunak betetzen direla frogatzen duten agiriak, horretarako eskuduna den Agintaritzak luzatuak, hala badagokio.

2. ATALA

AURKEZTEKOA AURKEZTEKO EPEAK

88. artikulua. Aurkeztekoa aurkezteko epeak.

1. Araudi honen 85. artikuluan aipatu diren agiriak, aitorpenak eta aitorpen-likidazioak honako epeetan aurkeztuko dira:
 - a) Mortis causa edo oinordetza-tituluen bidezko eskuraketetan, heriotza-kasurako bizi-aseguruen kontratuen onuradunenak barne direla, urtebeteko epean. Epe hori kausatzailea hiltzen den egunean hasiko da zenbatzen, edo kausatzailearen

heriotzaren adierazpenak irmotasuna hartzen duen egunean, edo, oraingo eraginkortasuneko oinordetza-itunetan, Zerga sortzen den egunean.

Epe bera aplikatu ahalko zaie gozameduna hiltzean gauzatu behar diren gozamen-eskuraketei, jabaria inter vivos egintzaren bitartez zatibanatu arren.

- b) Gainerako balizkoetan, 30 asteguneko epean. Epe hori egintza edo kontratua sorrarazi edo egiten den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.
- 2. Ondasunen edo eskubideen eskuraketetan, baldin eta haien eraginkortasuna araudi honen 65. artikuluko 3. idatz-zatian xedaturikoarekin bat etorririk etenda badago, artikuluko honetako aurreko idatz-zatian aipatu diren epeak eskuraketak burutuzat jotzen diren egunean hasiko dira zenbatzen.
- 3. "Alkar-poderosoa" edo ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden ondasun-eskuraketetan, berriz, ahala modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatzen denean hasiko da zenbatzen artikuluko honetako 1. idatz-zatikoa a) letran aipatu den epea.

89. artikulua. Aurkeztekoa aurkezteko epeak etetea.

- 1. Baldin eta, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak zergapetutako zerga-egitateei buruzko egintzei edo kontratuei begira, borondatezko testamentu judizio edo auzirik eragiten bada, interesatuek hori Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote.
- 2. Baldin eta, araudi honen 88. artikuluan aurkeztekoa aurkezteko ezarritako epearen barruan, borondatezko testamentu judizio edo auzirik eragiten bada, agiriak eta aitorpenak aurkezteko ezarritako epeak etengo dira. Epe horiek berriro ere auzibideratzeari amaiera ematen dion behin-betiko ebazpena irmoa den egunaren biharamunean hasiko dira zenbatzen.
- 3. Baldin eta borondatezko testamentu judizio edo auzia agiria edo aitorpena aurkeztu ostean eragiten bada, Administrazioak likidazioa etengo du behin-betiko ebazpena irmoa izan arte.
- 4. Baldin eta borondatezko testamentu judizio edo auzia aurkeztekoa aurkezteko epea ahitu ostean eragiten bada baina oraindik agiria edo aitorpena aurkeztu barik badago, Administrazioak hori aurkeztea eskatuko du baina likidazioa eten ahalko du ebazpen irmoa eman arte, hala denean bidezkoak diren zehapenen kaltetan joan gabe.
- 5. Baldin eta borondatezko testamentu judizio edo auzia likidazioa egin ostean eragiten bada, ordainketa geroratzea erabaki ahalko da, araudi honen 102. eta 109. artikuluetan xedatuta dagoenarekin bat etorririk.
- 6. Honako jarduketok ez dira auzitarako kontutzat hartuko, artikuluko honetako aurreko paragrafoetan aipaturiko epeak eteteko.
 - a) Testamentuak ireki edo eskritura publikora bidaltzea xede duten judizio-dilijentziak.
 - b) Aipaturiko onura edo eztabaidatzekoa dakarren jaraunspena onartzeko inbentarioak eratzea.
 - c) Judizioko defendatzailea, zaindaria edo tutorea izendatzea.
 - d) Testamentugabezia edo testamentu-judizioa ezartzea.
 - e) Jaraunsleen adierazpena, oposiziorik azaltzen ez bada.
 - f) Eta, orokorrean, borondatezko jurisdikzioko jarduketak, auzibide-izaerarik hartzen ez badute.

Ez ditu epeak etenaraziko legez atzera eskuratzeko demandak ez doako justiziako onurarenak, ezta testamentua betetzearen edo testamentugabeziaren aurkako zorrak ordaintzeko erreklamazioek ere, hartzekodunak eskatuta dagokion judizio unibertsa ezartzen ez bada.

7. Borondatezko testamentu-judizioa eragiteak epeak etengo ditu, berriro ere autoa irmo geratzen den egunaren biharamunean edo interesatu guztiek eragindako auzian atzera egiten dutenean zenbatzen hasiko direnak. Lehenengo kasuan, mugatzeko eragiketak edo, oposiziorik egonez gero, auziari bukaera ematen dion epaia onetsiko dira.
8. Artikulu honen ondoretarako auzitarako kontua demanda aurkezten den egunean emango da hasitzat.
9. Era berean, ondoretarako, auzitarako kontuekin berdinetsiko dira eskualdaketa zehazten duen agiriaren edo testamentuaren aizunkeriari buruzko zigor-prozedurak.
10. Alde auzilariak sei hilabeteko epean auzitan jarraitzea eskatzeari uzten badiote, Administrazioak agiria aurkeztea eskatu eta auzitarako egintza edo kontratuari begirako likidazio egokia egin ahalko du. Hala ere, bidezkoa den itzulketa egin ahalko du, baldin eta epea mugaeguneratzean horrek ondorerik izan ez duela adierazten bada.

Auzitegiek auziari sorrarazi zuen eskearen iraungitasuna adierazten badu, ez dira epeak etentzat joko eta Administrazioak beharrezko zehapenak eta berandutza-korrituak eskatuko ditu agiriak aurkezteko arauzko epeak ahitzen diren egunaren biharamunetik.

Autoen aribidea eteteak, aldeek adostuta, honakoa ekarriko du: etete hori eskatzen duten egunean beste epe bat hastea, aurkezteko epe etengabea.

3. ATALA **AGIRIAK AURKEZTEKO LEKUA**

90. artikulua. Agiriak aurkezteko lekua.

Subjektu pasiboek araudi honen kapitulu honetan aipaturik dauden aitortenak eta gainerako agiriak aurkeztu beharko dituzte, non-eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko buruak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Foru Aginduaren bitartez zehazten duen lekuan.

Hala ere, subjektu pasiboek haiek Hipoteka Barrutiaren Bulego Likidatzaileetan aurkezteko aukera izango dute, baldin eta berauek araudi honetako hurrengo atalean xedatuta dagoenaren arabera eskudunak badira.

4. ATALA **HIPOTEKA BARRUTIAREN BULEGO LIKIDATZAILEAK**

91. artikulua. Hipoteka Barrutiaren Bulego Likidatzaileen eskumenak.

1. Borondatezko epealdian honakook kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko eskumena eratziki zaie Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari begira Jabetzaren Erregistratzaileen konturako Hipoteka Barrutiaren Bulego Likidatzaileei:
 - a) Hipoteka Barrutia mugatzeko eman edo izenpetutako agiriak edo egintzak.
 - b) Lekuz aldatu gabe Jabetzaren edo Ondasun Higikorren gaineko Hipotekaren eta Bahiaren Erregistroetan erregistratu ahal den edozein ondasun edo eskubide xede duten agiriak edo egintzak.
 - c) Edozein subjektu pasibok edo, mortis causa eskualdaketetan, kausatzaileak bere ohiko egoitza dagokion Hipoteka Barrutiaren mugapean duten edo izan duten agiriak edo egintzak.

2. Aurreko zenbakian xedaturikoarekin bat etorririk eskudun den edozein Bulegotan askatasunez aurkeztu ahalko dira agiriak, edo Foru Ogasunaren Bulego Likidatzaile Nagusian. Araudi honen kapitulu honetako aurreko ataletan manaturikoa bete behar da.
3. Agiria Bulego Likidatzaile eskudun batean aurkeztu ostean, bulego horrek agiri horren ondoriozko likidazioak oro egin eta eskatuko ditu.
4. Mortis causa eskualdaketetan, oinordetza bati buruzko agiri guztiak beraietariko lehenengoa aurkeztea egiaztatu den Bulegoan aurkeztu beharko dira likidatzeko. Horretarako berdin da zer dagoen xedatuta artikulua honetako aurreko 1. Paragrafoan bigarren eta ondorengo agiriei buruz.
5. Edonola ere den, Bizkaiko Foru Aldundiko Zergen Ikuskatzaitzak ikuskatu behar du Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

5. ATALA TRAMITAZIOA

92. artikulua. Aurkeztutako agiriak tramitatzea.

1. Agiria edo zerga-aitorpena dagokion Bulegoan likidatzeko aurkeztu ostean, bulego horrek hura jaso izanaren agiria egingo du eta aurkezpen-data eta dagokion zenbakia agerraraziko ditu agiriak aurkezteko erregistroan. Erregistro hori zehazki burutu beharko da.
2. Mortis causa eskuraketei buruzko agiriak tramitatzeko honako erregelok hartuko dira kontutan:
 - a) Zerga-egitateak kalifikatzeko behar diren datu eta aurreko guztiak aurkezten badira eta baliorik egiaztatu behar ez bada, Bulego likidatzaileak behin betiko egingo du edo ditu bidezko likidazioa edo likidazioak, edo salbuespenaren edo loturarik ezaren adierazpenak zainpetuko ditu, behar denaren arabera.
 - b) Interesatuei, beste datu edo aurrekorik ekarri behar badute, hamabost eguneko epea emango zaie hori egin dezaten. Hori egiten dutenean, baliorik egiaztatu behar ez bada, aurreko letran aipaturik dagoena egingo da. Horrelakorik ekartzen ez badute, eta bidezkoak diren zehapenen kaltetan joan barik, behin-behineko likidazioak egin ahalko zaizkie beraiek ekarritako datuak eta Administrazioak dituenak oinarri harturik.
 - c) Beharrezko datu eta aurreko guztiak eskura izaten badira eta baliorik egiaztatu behar bada, araudi honen 47. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedura-erregelari jarraituko zaie; eta ebaluazio-prozedura bukatuta dagoenean, bidezkoak diren behin-betiko likidazioak egingo dira, aurkezleari behar bezala jakinaraziko zaizkionak.
 - d) Balioak egiaztatzeko bide bezala Administrazioako perituen irizpenera jotzekotan, Bulego likidatzaileak lana dagokien zerbitzu teknikoei baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda bat bidaliko die ondasun eta eskubideon izaerarako egokia den titulua duten langileek dagokien txosten teknikoa eman dezaten. Irizpen horrek behar beste zioztaturik egon beharko du.
3. Aurreko paragrafoan xedatuta dagoena gorabehera, behin-betiko likidazioak egiteko, osorik egiaztatu behar dira kausatzailearen jaraunspenezko ondasuntza zerga-ondoreei begira. Aitortutakoa integratu behar da araudi honen 30-33 artikuluetako ustezkotasunetatik ateratzen diren gehiketekin batera.
4. Eskuraketa edonolakoa delarik ere, zerga-egitatea eta balorazioa behin betiko egiaztatu barik egiten diren likidazioek behin-behineko izaera izango dute.

93. artikulua. Jaraunsle ezezagunen balizkoa.

Heriotzaren karizko eskuraketetan, baldin eta jaraunsleak ezagunak ez badira, jaraunspenezko ondasunen administratzaileek edo edukitzaileek araudi honen 87. artikuluan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte jaraunsteen zerrenda izan ezik, horretarako aipaturiko epeak mugaeguneratu baino lehen; eta likidazioa egiteko aurkezpen-epea etetea eskatu ahalko dute, bidezko karirik dagoela frogatuz gero.

Administrazioaren iritziz hori frogatzen ez bada, behin-behineko likidazioa egingo da kausatzailearen ordezkariaren kontura, eta oinarri likidakorrari aplikatuko zaio arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa, Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bateginean eta araudi honetan definituta dagoen oinordetzari dagokion tarifa alegia. Hala ere, sobera ordaindutakoa itzuli ahalko da bidezko izanez gero. Hori egin ahalko da, jaraunsleak ezagunak izan eta beren kausatzailearekiko ahaidetasuna frogatu ostean.

94. artikulua. Likidazioak nolakoak diren agerraraztea.

Likidazioak zergadun bakoitzaren izenean egingo dira eta beraietan beraien behin-behinekotasuna edo behin-betikotasuna agerraraziko da. Modu berean, bidezko izanez gero, partzial edo osagarri bezala igorritakoen izaera agerraraziko da.

95. artikulua. Likidazio osagarriak.

Likidazio osagarriak egingo dira baldin eta, behin-behineko likidazioa aurretik igorrita, egiaztaketaren ondorioz, likidazio horretan kontutan hartutako zerga-oinarriarentzat baliorik igo behar bada, edo baldin eta sartutako kuota txikiarazi duten oker materialak daudela egiaztatzen bada.

Izaera bera izango dute Bulego Likidatzaileak ikerturik ekarritako datu berrien ondorioz egindako likidazio guztiek, behin-behineko likidazioaren oinarria gehiarazi behar badute.

Likidazio osagarrien barruan sartuta daude araudi honen 88. eta 89. artikuluetan aipaturik dauden agiriak, aitortenak eta aitorten-likidazioak aurkezteko borondatezko epealdia amaitzen denetik pasatzen den epealdiari dagozkion berandutza-korrituak.

6. ATALA LIKIDAZIO PARTZIALAK

96. artikulua. Konturako likidazio partzialak.

1. Jaraunspen-oinordetzetan interesatuta daudenek dagokien Bulego Likidatzaileari agiriak edo aitortenak aurkezteko ezarritako epeen barruan eskatu ahalko diote Zerga partzialki likidatzea, zertarako-eta kausatzailearen kredituak eta kausatzaileak sortu bai baina jaso ez dituen hartzekoak kobratzeko edo gordailuan dauden dirua, efektuak, ondasunak edo baloreak ateratzeko, edo egoera ezberdineko ondasunei begira likidazio partzialaren beharra frogatzen duten arrazoiak dauden antzeko beste balizkorik badago.
2. Likidazio partzialak egiteko, interesatuak dagokien Bulego likidatzailean idazki banaren bina ale aurkeztu beharko dute. Bertan zerrendan aipatu beharko dituzte likidazio partziala ustez behar duten ondasunak; eta berauen balioa eta egoera eta, hala denean, ordaindu edo ondasunak eta eskatzailearen edo eskatzaileen eskubidea kreditatzen duen titulua eman behar dituen pertsonaren edo Erakundearen izena adierazi beharko dituzte.
3. Aurkeztutako aitortpena ikusirik, Bulego likidatzaileak likidazio partziala egingo du. Horretarako, eskabidea dagokien ondasunen balioaren gainean Zergaren tarifa aplikatuko da txiki penik egin gabe.
4. Likidazio partzialaren zenbatekoa sartuta, interesatuari emango zaio aurkeztutako eskabide-idazkiaren ale bat, eta sarrera-oharra. Idazki hori aurkeztuta, ondasunak edo

dirua eman edo ordaindu behar dituen pertsonari kreditatuko zaio ezen, zergari begira, baimenduta dagoela gordailatutako ondasunak edo dirua eman, ordaindu edo ateratzea.

5. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera igortzen diren likidazio partzialek den jaraunspenezko oinordetzarengatik bidezko den behin-betiko likidazioaren konturako sarreren izaera izango dute.

7. ATALA ZERGA ORDAINTZEA

97. artikulua. Likidazioen berri ematea.

Bidezko diren likidazioak eginda, subjektu pasiboari eta agiriaren edo aitortzearen aurkezleari haien berri emango zaie eta haien izaera eta zioztapena eta sarrera egiteko lekua, epeak eta era jakinaraziko zaizkie, baita jarri ahal diren errekursoak, horretarako lekuak eta errekursook jarri beharko zaizkien organoak ere.

98. artikulua. Ordaintzeko epeak eta era.

1. Zerga Administrazioak egindako likidazioak ordaintzeko, kontutan hartu beharko dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Araudian orokorrean ezarritako epeak.
2. Zerga-zorra Espainiako Ondare Historikoko ondasunak emanez ordaindu ahalko da, baldin eta berauek Ondasun Higikorren Inbentario Orokorrean edo Kultur Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean erregistraturik badaude, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 69. artikuluan 2. Paragrafoan xedatuta dagoenarekin bat etorririk.
3. Likidazioak egin dituen Bulego Likidatzaileak Finantza-erakundeei baimendu ahalko die, interesatuek eskatuta eta haiek jakinarazi osteko zortzi egunetan kenduta, kausatzailearen izenean erakundeotan gordailatutako baloreak besterenganatzea; eta haien zenbatekoaren edo haren aldeko edonolako kontuetako saldoaren pentzuan Bizkaiko Foru Ogasunaren izenean taloiak igortzea, aipatutako likidazioen zenbateko zehatzeko taloiak alegia.

8. ATALA ORDAINKETA GERORATU ETA ZATIKATZEA

99. artikulua. Ordainketa geroratu eta zatikatzeko balizko orokorrak.

Ordainketa geroratu eta zatikatzeko balizko bereziak kontutan hartuko dira, atal honetako hurrengo artikuluetan aipatuta dauden balizkoak alegia. Hala ere, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aplikatu ahalko dira ordainketa geroratu eta zatikatzeari buruz Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Araudian ezarrita dauden arauak.

100. artikulua. Jabetza soileko ondasunak edo eskubideak jaraunspenez eskuratzeagatik ordainketa geroratzea.

1. Organo eskudunek erabaki ahalko dute jabetza soileko ondasunak edo eskubideak jaraunspenez edo legatuz eskuratzeagatik likidatutako kuotak ordaintzea jabaria sendotu arte geroratzea, baldin eta:
 - a) Araudi honen 85. artikuluan aipatuta dagoen agiria edo aitortzea Bulegoan araudi honen 88. artikuluan ezarrita dauden epeen barruan aurkeztu bada.
 - b) Ordaintzekoa ordaintzeko araudi honen 98. artikuluan aipatuta dagoen arauko epea ahitu baino lehen eskatzen bada.
 - c) Interesatuak Zerga ordaintzeko behar beste ondasun ez duela adierazten badu.

- d) Legezko hipotekaren, beste ondasun batzuen gaineko hipoteka bereziaren edo izaera solidarioko banku-fidantzaren bitartez bermatu ahal bada Zerga ordaintzea.
2. Artikulu honetako aurreko paragrafoan aipaturik dagoen gerorapena emateak ez du dagokion berandutza-korritua ordaindu beharra ekarriko.

101. artikulua. Likidazioak gehienez bost urtekotan zatikatzea.

1. Organo eskudunek erabaki ahalko dute jabetza soileko ondasunak edo eskubideak jaraunspenez edo legatuz eskuratzeagatik likidatutako kuotak ordaintzea gehienez bost urtekotan zatikatzea, baldin eta:
- a) Araudi honen 85. artikuluan aipatuta dagoen agiria edo aitortpena Bulegoan araudi honen 88. artikuluan ezarrita dauden epeen barruan aurkeztu bada.
 - b) Ordaintzekoa ordaintzeko araudi honen 98. artikuluan aipatuta dagoen arauzko epea ahitu baino lehen eskatzen bada.
 - c) Interesatuak Zerga ordaintzeko behar beste ondasun ez duela adierazten badu.
 - d) Zor nagusiaren zenbatekoa eta berandutza-korrituak estaltzen dituen bermea eratzeko konpromisorik aurkezten bada (partida bien batuketaren 100eko 25 gehiago). Zatikapena behin betiko ematea bermea eratzearen menpean geratuko da.
2. Zatikapena emateak hura sortzen den egunean indarrean dagoen berandutza-korritua ordaindu beharra ekarriko du.

102. artikulua. Kausadunak ezezagunak izanez gero likidazioak geroratzea.

1. Ondasunen administratzaileek edo edukitzaileek hala eskatuta, organo eskudunek mortis causa eskuraketengatik egindako likidazioak geroratzea eman ahalko dute, harik eta oinordetzan kausadunak ezezagunak diren arte, baldin eta:
- a) Ordaintzekoa ordaintzeko araudi honen 98. artikuluan aipatuta dagoen arauzko epea ahitu baino lehen eskatzen bada.
 - b) Kausatzailearen ondasunen artean inbentariaturik ez badago likidatutako kuotak ordaintzeko errazki egin ahal den behar beste ondasun edo eskudiru.
 - c) Zor nagusiaren zenbatekoa eta berandutza-korrituak estaltzen dituen bermea eratzeko konpromisorik aurkezten bada (partida bien batuketaren 100eko 25 gehiago). Gerorapena behin betiko ematea bermea eratzearen menpean geratuko da.
2. Gerorapena emateak hura sortzen den egunean indarrean dagoen berandutza-korritua ordaindu beharra ekarriko du.

103. artikulua. Banakako enpresarik eskualdatuz gero likidazioak ordaintzea geroratzea.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-Bilketari buruzko Araudian aipaturiko ordainketaren gerorapenak eta zatikapenak emateko organo eskudunek, bertan ezarritako prozedurari eta baldintzei loturik, haiek artikuluko honetan xedatuta dagoenarekin bateratu ahal badira, bost urtez geroratu ahalko dute, subjektu pasiboak eskatuta, industri, merkataritza, eskulangintza, nekazaritza edo lanbide jarduera egiten duen banakako enpresa bat jaraunspenez, legatuz edo dohaintzan eskualdatzearen ondorioz egindako likidazioak ordaintzea.

Eskabidea sarrera egiteko araudi honen 98. artikuluan aipatuta dagoen arauzko epea ahitu baino lehen aurkeztu beharko da, baita zor nagusiaren zenbatekoa eta legezko korritua estaltzen dituen berme nahikoa eratzeko konpromisoa ere (partida bien batuketaren 100eko 25 gehiago).

2. Aurreko paragrafoan aipatuta dagoen balizkoan, ez da berandutza-korriturik sortuko ordainketa geroratzeko epealdian.
3. Aurreko 1. Paragrafoan aipatuta dagoen gerorapena mugaeguneratuta, organo eskudunek erabaki ahalko dute, baldintza eta beharkizun berdinak beteta, ordainketa elkarren ondorengo seihilekokako hamar epetan zatikatzea, zatikapena ematearen berri ematen dutenetik.

Zatikaturako ordainketaren bat ez ordaintzeak balizko horretarako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-Bilketari buruzko Araudian ezarritako ondoreak izango ditu.

4. Artikulu honetako aurreko paragrafoan aipaturik dagoen zatikaldian, zatikatzeko denborari dagokion diruaren legezko korritua sortuko da.
5. Aurreko zenbakietan aipaturiko gerorapenek eta zatikapenek eskualdatutako enpresaren balio egiaztatuari dagokion zerga-zorren proportziozko zatia ukituko dute, kausadunen guztirako jaraunspenezko ondasuntzari begirakoa.

104. artikulua. Organo eskudunak.

1. Araudi honen 99. eta 103. artikuluetan aipatuta dauden ordainketaren gerorapenak eta zatikapenak tramitatu eta erabakitzeko organo eskudunak honakook izango dira: Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-Bilketari buruzko Araudian aipatuta dauden organoak.
2. Araudi honen 100., 101. eta 102. artikuluetan aipatuta dauden ordainketaren gerorapenak eta zatikapenak tramitatu eta erabakitzeko eskuduna Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Zerga-bilketa Zuzendariordeak izango da.
3. Artikulu honetako aurreko 2. Paragrafoan eta araudi honen 100., 101. eta 102. artikuluetan xedatuta dagoenarekin bat etorririk hartutako erabakien kontra ezin izango da errekurtso edo erreklamaziorik jarri.

III. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIOA

1. ATALA BEHARKIZUNAK ETA AURKEZPENA

105. artikulua. Autolikidazio-araubidea: Beharkizunak.

1. Araudi honen 9. artikuluen 1. Paragrafoko a) letran aipaturik dauden pertsona fisikoek dohainik lortutako ondare-gehikuntzetan, subjektu pasiboek autolikidazio-araubidea aukeratuz gero, aurkeztutako aitorten-likidazioetan sartu behar dute eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioa, oinordetzan interesatuta dauden eskuratzailerik guztiek agiri edo aitorten berean sartuta egon behar dute eta guztiek elkarrekin ados egon behar dute autolikidazioa egiteko.

Aurreko ahapaldian eskatutako beharkizunak betetzen ez dituen autolikidazioarengatik sartutako zenbatekoa konturako sarrera hutsa izango da; baina, bera dela bide Bulego Likidatzaileak ez du zertan bete araudi honen 106. artikuluen 3. eta 4. Paragrafoetan ezarrita dagoena.

2. Araudi honen 9. artikuluen 1. Paragrafoko b) eta c) letretan aipaturik dauden pertsona fisikoek dohainik lortutako ondare-gehikuntzetan, subjektu pasiboek dagokien aitorten-likidazioa derrigorrez aurkeztu behar du. Aseguratuaren heriotza-kasurako biziaren gaineko aseguru-kontratuen ondoriozkorik jasoz gero, aseguruaren interesatuta dauden eskuratzailerik guztiek agiri edo aitorten berean sartuta egin behar dute.

Aurreko ahapaldian eskatutako beharkizunak betetzen ez dituen autolikidazioarengatik sartutako zenbatekoa konturako sarrera hutsa izango da; baina, bera dela bide Bulego

Likidatzaileak ez du zertan bete araudi honen 106. artikularen 3. eta 4. Paragrafoetan ezarrita dagoena.

3. Artikulu honetako aurreko paragrafoetan xedaturikoa gorabehera, ondasun eta eskubideen zati baten gaineko autolikidazio partziala, araudi honen 96. artikularen arabera konturako likidazio partziala egitea onartzen bada.

106. artikulua. Autolikidazioak aurkeztu eta sartzea.

1. Subjektu pasiboek, autolikidazioaren bitartez beren zerga-zorren zenbatekoa beren kontura zehaztea aukeratzen baitute edo hura araudi honen 105. artikuluan xedatuta dagoenarekin bat etorririk zehaztu behar baitute, autolikidazio hori Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren Foru Aginduak horretarako bereziki gaitutako aitorpen-likidazioaren inprimakiereduan aurkeztu beharko dute, eta beraren zenbatekoa sartu beharko dute agiriak edo aitorpenak aurkezteko araudi honen 88. artikuluan ezarritako epeen barruan, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak Foru Aginduaren bitartez ezarritako lekuan eta eran.
2. Aurreko paragrafoan aipatuta dagoen aitorpen-likidazioarekin batera, notarioaren, epailearen eta administrazioaren agiriaren benetako kopia aurkeztu beharko da. Bertan agertu edo aipatu behar dira zerga-egitatea sortzen duen egintza eta zerga-egitatearen kopia sinplea. Agiri pribatuen kasuan, berauen bina ale aurkeztuko dira, originala eta kopia, autolikidazio-inprimakiarekin batera.

Halaber, aurkeztutako aitorpen-likidazioekin batera aurkeztu beharko dira, kasuen arabera, araudi honen 87. artikularen 4., 5., 6. eta 8. paragrafoetan aipaturiko agiriak.

3. Zergadunak autolikidazioa aurkeztuko du agiri originalekin eta berauen kopiekin batera dagokion Bulego Likidatzailean. Bulego likidatzaile horrek erreferentziatzeko zenbaki bana emango die aurkeztutako autolikidazioei. Tramite hori egin ostean, zergadunak sarrera egin ahalko du dagokion Kutxan.
4. Autolikidazioen zenbatekoa sartuta, subjektu pasiboek Bulego Likidatzailean aurkeztu beharko dute egindako sarreraren edo sarreraren frogagiria, oinordetza edo dohaintza bakoitzerako gutunazal bakarrean.
5. Bulego Likidatzaileak aurkezleari agiri originala itzuliko dio egindako sarrera eta kopiaren aurkezpena kreditatzeko bertan estanpaturiko oharrarekin. Sarrera-ohar bera agerraraziko da kopian ere. Berau Bulegoan gordeko da zerga-egitatea aztertzeke eta kalifikatzeko eta, bidezko izanez gero, likidazio osagarria edo osagarriak zuzentzeko, egiaztatzeke eta egiteko.
6. Autolikidazioa, bertatik sartu beharreko zerga-kuotarik ateratzen ez bada, Bulego Likidatzaile eskudunean zuzenean aurkeztuko da agiriarekin batera. Bulego horrek autolikidazioa zigelatu eta oharra idatziko du agiri originalean, interesatuen arabera bidezko den kalifikazioa agerraraziko duelarik. Agiri original hori aurkezleari itzuliko zaio eta kopia sinplea Bulegoan gordeko da aurreko paragrafoan aipatutako ondoretarako.

2. ATALA TRAMITAZIOA

107. artikulua. Autolikidazioak tramitatzea.

1. Subjektu pasiboek Bulego Likidatzailean aurkezturiko aitorpen-likidazioak eta agiriak tramitzeko kontutan hartuko da agiriak aurkezteko araubideari begira araudi honen 92. artikuluan xedatutakoa. Interesatuek egin eta, hala denean, sartutako autolikidazioen ondorio direnak beste espezialitaterik ez da kontutan hartuko.

Horren ondorioz, Bulego Likidatzaileak agirietan zainpeturiko zerga-egitateak aztertu eta kalifikatuko ditu, zertarako-eta, beste kasu batzuen artean, oker materialen edo kalifikazio-okarren ondorioz edo interesatuek beren buruari likidatu ez dizkioten zerga-egitateak

egoteagatik bidezko diren likidazio osagarriak eta balioak egiaztatzea, ondasunak gehitzea edo kausatzailearen ondasun berriak aurkitzea jatorri dutenak egiteko.

Interesatupei, Bulegora beste datu edo aurrekorik ekarri behar badute, hamabost eguneko epea emango zaie hori egin dezaten.

2. Balioak egiaztatzekotan, araudi honen 92. artikulua 2. Paragrafoko c) eta d) letretan xedaturikoa beteko da.
3. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioz, Bulego Likidatzaileak egindako likidazioak subjektu pasiboari edo agiriaren aurkezleari jakinaraziko zaizkie eta haien izaera eta zioztapena eta sarrera egiteko lekua, epeak eta era adierazi zaizkie, baita jarri ahal diren errekurtsioak, horretarako lekuak eta errekurtsioak jarri beharko zaizkien organoak ere.

3. ATALA AUTOLIKIDAZIO PARTZIALAK

108. artikulua. Konturako autolikidazio partzialak.

1. Araudi honen 105. artikulua 3. Paragrafoan xedaturikoarekin bat etorririk, heriotzaren karizko eskuraketetan, subjektu pasiboek, guztiak aurretik ados badaude (bat baino gehiago badira), Zerga partzialki autolikidatu ahalko dute, zertarako-eta kausatzailearen kredituak eta kausatzaileak sortu bai baina jaso ez dituen hartzeak kobratzeko edo gordailuan dauden dirua, efektuak, ondasunak edo baloreak ateratzeko, edo egoera ezberdineko beste ondasun batzuei begira autolikidazio partzialaren beharra frogatzen duten arrazoiak dauden antzeko beste balizkorik badago.
2. Autolikidazio partziala aurkezten duten subjektu pasiboek gero aurkeztu ahalko dute eskuratu dituzten ondasun eta eskubide guztiengatik autolikidazioa, araudi honen 105. eta 106. artikuluetan ezarritako eran.
3. Autolikidazio partziala egiteko, berau dagokien ondasunen balioaren gainean Zergaren tarifa aplikatuko da txikienez egin gabe.
4. Araudi honen 106. artikuluan ezarritako eran autolikidazio partzialaren zenbatekoa sartuta, Bulego Likidatzailean autolikidazio-inprimakiaren ale bat aurkeztuko da, sarrera ageri dena, zerrendaren ale birekin batera. Bertan azaldu behar dira hura dagokien ondasunak eta beraien balioa eta egoera, eta ordaindu edo ondasunak eta eskatzailearen edo eskatzaileen eskubidea kreditatzen duen titulua eman behar dituen pertsonaren edo Erakundearen izena. Bulegoak zerrendaren ale bietako bat itzuli behar du sarreraren oharrarekin.
5. Autolikidazio partzialari jarraiki egindako sarrerak den jaraunspenezko oinordetzarengatik bidezko den behin-betiko likidazioaren konturako sarreraren izaera izango du.

4. ATALA GERORAPENAK ETA ZATIKAPENAK

109. artikulua. Autolikidazioak geroratu eta zatikatzea.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Araudiko arau orokorrak aplikatuko dira interesatuek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz ordaindu beharreko autolikidazioak ordaintzea geroratzea eta zatikatzea erabakitzean.
2. Hala ere, araudi honen 100., 101. edo 103. artikuluetan ezarritako beharkizunak betez gero, interesatuek organo eskudunei eskatu ahalko diete, araudi honen 104. artikuluan xedatutakoaren arabera, agiriak aurkezteko araubide orokorrari begira ezarritako eran onurok emateko, araudi honen 104. artikulua 3. Paragrafoan xedatutakoa aplikaturik.

Eskatutakoa ukatzen bazaie, sarrera egiteko epea epealdi batean luzatutzat hartuko da. Berau gerorapena edo zatikapena emateko eskabidea aurkezten duten egunean hasi eta ukapenezko erabakia jakinarazten zaien egunean bukatuko da. Hala ere, dagozkien berandutza-korrituak ordaindu beharko dituzte.

3. Artikulu honetako aurreko bi idatz-zatietan ezarritakoa kontuan izanda, bizitza aseguruetan, kausatzailea talde aseguruako kontratatzailea edo aseguraturua denean, eta zenbatekoa errenta -bizi artekoa edo aldi baterakoa- gisa jasotzen denean, onuradunak eskatuta, kasuan kasuko zergaren likidazioa zatikatuko da, eta, horretarako, ondokoak hartu beharko dira kontuan:

A) Idatz-zati honetako kasuetan, onuradunak errenta horren balioa bildu beharko du zerga oinarrira, eta balio hori kalkulu aktuarileko irizpideen arabera zehaztuko da.

B) Organo eskudunek idatz-zati honetan aipatu zerga kuoten ordainketaren zatikatzea erabakiko dute, ondoko baldintzak betetzen badira:

a) Araudi honetako 85 eta 105. artikuluetan aipatu aitoren-likidazioa kasuan kasuko bulegoan aurkeztu izana Araudiko 88. artikuluan xedatutako epean.

b) Zatikatzeari eskatu izana Araudiko 106. artikuluan aipatu zerga zorra ordaintzeko epea amaitu baino lehen.

C) Organo eskudunek zatikatzea errenta jasotzen den urte kopuruan egitea erabakiko dute, errenta aldi baterakoa bada, edo hamabost urteko epean gehienez, errenta bizi artekoa bada.

D) Zatikatzeari ebatzen bada, ez da beharrezkoa inolako gauderik egin edo kasuan kasuko berandutza korritua ordaintzea.

E) Eskabidea hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da aurkeztu zenetik, eta epe horretan, zergadunari eskabidearen gaitzirikpena ez bazaio jakinarazi, eskabidea oniritzitzat joko da.

F) Zatikaturako ordainketari dagokion urteko sarreraren zenbatekoa ondokoa izango da: zatikatutako kuotaren zenbatekoa zati errenta jasotzen den urte kopurua, errenta aldi baterakoa bada, edo zati hamabost, bizi artekoa bada.

Urteko zatikatutako ordainketa urteko errenta bakoitza osoa jaso eta hurrengo urtarrilean sartuko da.

G) Erreskate eskubidea egikaritzen bada, ordaindu gabeko zatikatutako ordainketa guztiak ekitaldia amaitu eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dira.

Pentsioa iraungi bada, benetan jaso den errentaren urtekoari dagozkion zatikatutako ordainketak baino ez dira egin beharko, artean ordaindu ez badira, eta jaso ez diren errentaren urtekoari dagozkienak ez dira ordainduko.

H) Idatz-zati honetan aipatu zatikatzea baimentzeko organo eskuduna araudi honetako 104. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa izango da, eta araudi honetako 104. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da.

Eskatutakoa ukatzen bazaie, sarrera egiteko epea epealdi batean luzatutzat hartuko da. Berau zatikapena emateko eskabidea aurkezten duten egunean hasi eta ukapenezko erabakia jakinarazten zaien egunean bukatuko da. Hala ere, dagozkien berandutza-korrituak ordaindu beharko dituzte.

IV. KAPITULUA ITZULKETAK

110. artikulua. Beharkizunak.

1. Aplikazio orokorrekoetan eta araudi honetan aipaturik dauden gainerako balizkoetan ezezik, zergadunak Zergaren kuotaren zioz ordaindutakoa itzul dakion eskubidea du egintza edo kontratu bat deuseztu, hutsaldu edo ebatzi dela ebazpen irmoz epaileak edo administrazioak adierazi edo aitortzen duenean ere, baldin eta horrek irabazte-ondorerik ekarri ez badio eta itzultzekoa hiru urteko epean itzul dakion eskatzen badu. Epe hori ebazpena irmo geratzen denean hasiko da zenbatzen.

Ez da beharrezko izango epai- edo administrazio-adierazpena, baldin eta ebazpena aldeek ezarritako baldintza bat betetzearen ondorio bada.

2. Irabazte-ondorea egongo da baldin eta frogatzen ez bada interesatuek, hala denean, Kode Zibilaren 1295. artikuluko elkarrekiko itzulketak burutu behar dituenik.
3. Egintzak edo kontratuak irabazte-ondorerik sortu badu, egindako likidazioa zuzenduko da eta horretarako oinarritzat hartuko da eskualdatutako ondasun edo eskudunen aldi baterako gozamenaren balioa.
4. Egintzak edo kontratuak irabazte-ondoriorik sortu ez duen arren, bera hutsaltzea edo ebaztea adierazten bada Zerga ordaindu behar duen kontratugileak betebeharrak ez betetzeagatik, ez da ezer itzuliko.
5. Kontratua ondorerik gabe geratzen bada alde kontratugileen elkarrekiko adostasunaz, ordaindutako Zerga ez da itzuliko eta zerga ordaindu behar duen beste egintza bat balitz bezala hartuko da. Elkarrekiko adostasun hori dela eta, berdinkatzeko egintzan abenikoa eta demandan amore emate hutsa onartuko dira
6. Aurreko paragrafoetan ezarritako arauak araudi honen 9. artikuluan definitutako zerga-egitatea integratzeko moduko egitate-balizkoei buruzkotzat hartuko dira, diren egintza edo negozio juridikoen karia oro har den eskuzabaltasun-asmoak azal ditzakeen berezitasun juridikoak kontutan hartuz.

V. KAPITULUA ERAZKO BETEBEHARRAK

111. artikulua. Arau orokorrak.

1. Epai-organoek Foru Aldundiari hilero bidaliko diote betearazitako epaitzen edo epai irmoen zerrenda, baldin eta berauetatik ondorioztatzen bada Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergapeko ondare-gehikuntzak daudela.
2. Erregistro Zibileko arduradunek Foru Aldundiari hil bakoitzaren lehenengo hamabostaldian bidaliko diote aurreko hilean hildakoen eta berauen egoitzen helbideen zerrenda izendatua.
3. Notarioek Foru Aldundiari eman behar dizkiote beraiek beren eginkizunak burutzeko esku hartu duten egintzei buruz eskatzen dizkien datuak, eta dohainik luzatu behar dituzte, hamabost eguneko epean, hark eskatzen dizkien eta beren protokoloan baimentzen dituzten eta dituzten agirien kopiak, Notarioei buruzko 1862ko maiatzaren 28ko Lege Organikoaren 34. eta 35. artikuluetan aipatuta dauden herri tresnen kasuan izan ezik; eta senar-emazteen edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteen kontuei buruzkoak, ezkontzaren sozietatearen araubide ekonomikoari eta izatezko bikoteen araubide ekonomikoari dagozkien kasuan izan ezik.

Halaber, hiruhileko bakoitzeko lehenengo hamabostaldian bidali beharko dute aurreko hiruhilekoan baimendutako agiri guztien zerga-egitatea osatzen duten ondare-gehikuntzak ekarri ahal dituzten egintzei edo kontratuei buruzkoak badira.

Era berean, epealdi berean bidali beharko dute adierazitako edukia duten agiri pribatuen zerrenda, baldin eta berauek ezagutzeko edo sinadurak legebidezatzeko aurkeztu bazaizkie.

Gainera, notarioek hilero, lehen hamabostaldian, Foru Aldundiari bidali behar diote aurreko hilean eskuetsitako testamentuetatik jaraunspenaren komisarioak ordenatzaile ahala modu ezeztazinean erabili duenekoan zerrenda; bertan komisarioa eta erabili den ahala dagokion kausatzailea nortzuk diren zehaztu behar da. Zerrendan notarioak eskuetsitako agiri guztietatik testamentuahalorde erabili denekoak agertarazi behar dira, are komisarioak ahala bere testamentuan erabili duenekoak ere.

4. Epai-organoek, finantza bitartekoek, elkarteek, fundazioek, sozietateek, funtzionarioek norbanakoek ez beste ezein erakunde publikok edo pribatuk ez dute erabakiko ondasunak beraien titularrak ez direnei ematea, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik kreditatzen ez bada eta Foru Aginduak baimentzen ez badu.
5. Aseguru-erakundeek ezin likidatu edo ordainduko dituzte pertsona baten biziaren gainean itundutakoak, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik frogatzen ez bada eta Foru Aginduak baimentzen ez badu.
6. Aurreko bi idatz-zatietan xedatutakotik salbu daude araudi honetako 23. artikuluan aipatutako balizkoak, bertan ezarrita dagoenaren arabera eta bertako baldintzekin.
7. Aurreko zenbakietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, zehapena jarriko da araudi honen 115. artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorririk.

Alabaina, jurisdikzioko organoen kasuan, Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko agintariak egitateak jakinaraziko dizkio Epai-boterearen Kontseilu Nagusiari, Fiskaltzaren bidez, ondore egokietarako.

III. TITULUA ERREGISTROA IXTEA

112. artikulua. Agiriak onartzearen gaineko abiaburu orokorra.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari loturiko ondare-gehikuntza bat ekartzen duten egintza edo kontratuak dituzten agiriak ez dira onartuko eta ez dute ondorerik sortuko bulegoetan edo Erregistro publikoetan, baldin eta beraietan ez bada agertzen likidazioa egiteko organo eskudunei aurkezteko oharra. Hala ere, hori egingo da hipoteka-legerian ezartzen bada edo Foru Aldundiak berariaz baimentzen badu.
2. Epaitegiek eta Auzitegiek, aurreko zenbakian aipaturiko agiriak bertan adierazitako oharrak gabe onartu dituztenek, Zerga Administrazioiko organo eskudunei haien kopia baimendua bidaliko diete haiek onartzen dituzten egunaren oste-osteko hamabost egunetan.

113. artikulua. Erregistroa ixtea.

1. Jabetzaren Erregistroek, Merkataritzako Erregistroek, Espainiako Patente eta Marka Bulegoak, Edukitza Lekuz Aldatu gabeko Ondasun Higikorren gaineko Hipotekaren eta Bahiaren Erregistroek Herri Administrazioen menpeko Kooperatiba Erregistroek eta Ondasun Higikorren Erregistroek ez dute erregistratzeko edo idaztohartzeko onartuko zerga honi loturiko ondare-gehikuntza bat eskuratzea ekartzen duen egintza edo kontratua duen agiririk, likidazioa ordaindu dela edo, hala denean, hura salbuetsita edo loturagabetuta adierazi dela edo likidatzeko organo eskudunei aurkeztu zaiela frogatzen ez bada edo hipoteka-legerian ezarrita ez badago.
2. Aurreko paragrafoan ezarritako ondoreetarako, Zerga ordaindu izana kreditatutzat joko da, baldin eta agiriak ordainketa frogatzen duen oharra eramaten badu eta hura ordaintzeko gutunarekin edo autolikidazioaren beharrezko alearekin batera aurkeztzen bada eta hura

dagokion Bulego Likidatzaileak behar bezala zigilaturik badago. Era berean, ordainketa hori kreditatuzat jotzeko, bertan agerrarazi behar da zergaren ordainketa edo loturarik ezaren edo salbuespenaren alegazioa.

3. Nolanahi ere den, erregistratzaileak inskripzioaren albo-oharraren bitartez agerraraziko du ezen eskualdatutako ondasun edo eskubidea hala denean egin beharreko likidazio osagarria edo osagarriak ordaintzeari loturik dagoela.

Ohar horretan adierazi beharko dira beharrezko likidazioarengatik edo autolikidazioarengatik ordaindutako zenbatekoa eta berau ordaindu den data eta lekua, eta, hala denean, Bulego Likidatzaile eskudunak esleitutako espediente-zenbakia, salbuespena edo loturarik eza alegatu ez bada.

4. Oharra ofizioz luzatuko da, ondorerik gabe geratuko da eta kitatu beharko da aipaturiko likidazioak (berauek ordaintzeko bermea zen) ordaintzeko gutuna aurkezten bada edo beste era batera sinesgarriro frogatzen bada haiek sartu direla, eta edozein kasutan, haien datatik hiru urte pasatuta.
5. Era berean, artikulua honetan ezarritako arauak aplikatu ahalko zaizkie artikulua honen 1. Paragrafoan aipaturiko Erregistroen titularren menpean dauden eta etorkizunean ezartzen diren Erregistro publikoei.

114. artikulua. Zerga-erregistroak.

Zerga ordaintzeko edo ordainarazteko subjektu pasiboaren aldaketarik ezin egingo da Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik frogatu gabe, baldin eta aldaketa horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren peko ondasunak, eskubideak edo akzioak eskualdatzea zuzenean edo zeharka ekartzen badu.

IV. TITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA

115. artikulua. Urratze eta zehapenak.

1. Artikulu honetako hurrengo idatz-zatietan xedatutakoaren kalterik gabe, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren urratzeak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko arauzko xedapenetan xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zigortuko dira.
2. Eskuraketak salbuetsita daudenean, edo araudi honen 57- 61 bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera aplikatu ahal zaizkien txikiak zerga-oinarriaren bestekoak edo handiagoak direnean, eskuratutako ondasun edo eskubideen aitorten edo autolikidazioak epez kanpo aurkezten badira isun finkoa jarriko da: gehienez 9.015,18 euro subjektu pasibo bakoitzeko.
3. "Alkar-poderoso"ari edo ordenatzaile-ahalari lotuta dauden jaraunspenetan, araudi honen 77. artikuluan eta 85. artikuluko 3. idatz-zatian komisarioari ezarri zaizkion betebeharrak ez betetzea zerga-arloko urratze soiltzat joko da eta era honetara zigortuko da:
 - a) Komisarioak ez badu aurkezten jaraunspeneko ondasunen inbentariarik edota ahala frogatzeko agiririk, 6,01 eta 901,52 euro bitarteko isuna ezarriko da.
 - b) Ordenatzaile-ahala erabili egin dela edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatu dela jakinarazten ez bada, isun finkoa ezarriko da, gehienez 9.015,18 eurokoa.
4. Artikulu honetako 2 eta 3. idatz-zatietan aipatu diren zehapenen graduazioari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko arauzko xedapenetan ezarritako arau orokorrak beteko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Zenbatekoak eguneratzea.

1. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den Foru Aginduaren bitartez araudi honetako zenbatekoak egunera ditzan.
2. Europako moneta (euroa) osorik ezarri baino hiru hilabete lehenago gutxienez, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak araudi honetan pezetatan ezarritako zenbatekoak moneta horretara aldatuko ditu, pezetaren zatikiak ezabatu eta zenbatekoak eurotan ezarriko dituelarik, zertarako-eta, gure arautegian ohikoa den bezala, berauek errazki erabili ahal izateko.

Foru diputatu horrek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den Foru Aginduaren bitartez egingo du hori.